

Narratiba



ERRETIRADAKO TRENA
Martin Ugalde

erein

ERRETIRADAKO TRENA

Martin Ugalde

Erein

Narratiba, 7

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa,
edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright jabeen baimenik gabe.

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailaren laguntza jaso du.*

Azalaren diseinua: Iturri

Azalaren irudia: *Pagadia I*, Klimt

© Martin Ugalde

© EREIN. Tolosa Etorbidea, 107 - 20009-Donostia

ISBN: 84-7568-737-7

Legezko Gordailua: S.S.-1161/97

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

Eskaintza

Azken hamar urte hauetan nire idazlana ordenadorez arintzen hainbeste eta hain leial lagundu didan Fermin Olaskoaga lagun minari, esker on betez.

Martin

Ulazianeko Kasilda

Gizona zirudien, handia zelako, baina emakumez janzen zen, Kasilda zuen izena, eta Ulazianeko prakamana eta bien artean haurra ere egin zuten.

Proba hoberik...!

Botaz jantzitako oinkada handiz ibiltzen zen herrian agertzen zenean. Beti bakarrik. Eta egun eta eguzki guztietan ezkerreko fatrilkeraren ehunezko tumore antzeko trokoak adierazten zuen nabarmen ezkertiarra zela. Zergatik eramango zuen, bestela, makil-langa eskuinarekin hartura, ezkerre beti zizpoletaz tiro egiteko prest edukitzeko ez bazen?

Herriaren malizia beti argi!

Doña Kasilda... Ni haurra nintzela herrian ezkutuko bezala zebilen legenda bat zen. Haren gizontzar traza ez zela irudia bakarrik, egiazkoa zela, eta Kubako gerra amaitu zenean familiako arazoak konpontzera Ameriketara joan zenean hain ongi konpoduak utzi zituen, beretzat bakarrik geratu ziren guztiak. Gogoan dut oraindik, larunbatero etortzen zen gure Fontuso baserrira, eta gero "atzeko etxea" esaten genionera joaten zen, hor zituen etxetiar gajoak astintzera. Sartzen zen gela batera eta "hau neuk alokatuko dizut merke", eta babesik gabe heldu ziren meatzari berrien familiak hartzen zuen gela eta solairu osorako tokatzen zitzaion "komuna"; honexegatik deitzen zaio hemen kapixtokiari modu honetan, denen zulo komuna delako.

Orduan, hamabi urterekin, jakin nuen hau.

Doña Kasilda ahalmen handiko andrea zen, Bizkaiko aberatsena zela ere esaten zuten, ondasunak nonahi. Enkartazioetako meatokietan. Ezker-bazter guztia bere mende zegoen. Fontuso gure baserria bera ere berea izana zen eta!

Doña Kasilda ez zen gure auzoko pertsonaia bakarra, hala ere.

Gogoan dut etxetzar horretan bertan, goian, teilatondoan, azkeneko puntan, bizi zen kartak botatzen zituen sorgin bat, Marura deitzen ziotena, alargun geratu eta Frutuoso seme tentelarekin bizitzen jarri zena.

Baina doña Kasilda zen mamua; burdin meategiko mendi gorrietatik Fontusora jaisten zen bakoitzean haurren negarrezko izurria zabalitzen zen, jakina zen hau, eta adinekoetatik zahartxoena eta haurrak etxetik irten ere gabe geratzen zirela haize bolada handi hura bere koartelara itzultzen zen arte.

Jende pobrea aise izutzen baita.

Baina behin, negua zen, tximinietako ke beltzak igotzeko biderik aurkitzen ez zuen zeru beheko egun iluna, ama Eulalia sukaldean ari zen gosalongoan gurpildun aulkian eserita zegoen aita atontzen. Ni ondoko leihoan. Atearen krisketa hotsak asaldatu ninduen, zeren eta baratzeko bidetik igotzen ikusi ez nuen inor ez zitekeen sukaldeko atetik sar. Itzuli nuen nire buru handia, handia zela esaten zidaten lagunek, eta amaren ondoan zegoen dagoeneko Marura deitzen genion sorgina, Frutuoso tentelaren ama, eta esaten ari zen amatxoren belarrira, ahapeka baina larri:

"Andre Eulalia, Kasilda sartu zait etxean!".

"Zer zor diozu?".

"Errenta".

"Zenbatekoa?".

"Bi duro".

Marura geratu zaio esperoan; mutualdiak ustegabeen harrapatzen du ama, eta esaten du purrustada batean:

"Eta niri zer?".

"Zure lehengusina da eta...".

"Lehengusina... Badut hoberik!".

"Pistoloia erakutsi eta mahai gainean utzi dit, gertuko beldurra senti nezan".

"Zergatik ez duzu zuk hartu!".

"Pistola?".

"Noski".

"Zertarako?".

"Tiro egiteko!".

"Zure lehengusinari?".

"Nori, bestela?".

"Eta hilko banu?".

"Etorri zaizu hau burura?".

Marura isilik geratu da, ikusi diot beldurra begi zoro horietan; Andre Eulaliak utzi dio senarrari bizarra egiteko xaboi aparra brotxaz emateari eta arnasestuan dagoen emakumeari begira jarri zaio.

"Tiroa bota!".

"Zer bota?".

"Tiroa, kontxo!".

Marura isilik, ausarki isilik... Bizargina jarri da berriz lanean; senarra, kapitain zuzen eta indartsu izana, orain haurra bezala zerura begira, eta ni han leihoko aulkitxoan eserita, itzalean ez ninduten ikusten, sukaldea isilik, eta berriz doña Eulalia lanean ari dela entzuten du zaratatxoa eta mahai gainean emandako kankateko bat.

"Zer da hori?".

"Zure lehengusinaren kanoia".

"Nolatan hau!", senarraren aurpegi erdia apar zuritan oraindik.

"Zeuk esan bezala, kojones!", dio Marurak bi eskuak aldaketan.

"Eta, tiro?".

"Tiroa ere bai!".

"Benetan?".

"Noski".

"Non!".

"Kalabazaren erdian".

"Erotu zara, Marura!".

Aspalditik dago 'Marura sorgina' zoratuta, eta pistoloia mahai gainetik hartu eta bularren tolestura estuan sartzen du, ikusi diot titi erdia, eta han doa, motz, zabal, biribil, sukaldeko atetik, klik-klak!

Ama Eulaliak ezin du senarraren lana amaitu gabe utzi, eta honetan ari dela, isilik nagoela zutitzen naiz eta leihotik begira nago, Marura Fontusotik baratzean barrena

irteten ikusi zain... Maruraren pausoak eskailera laburretan behera, ukuilutik barrena entzuten ari naizen honek, begiak horretan erreta jarrita ere, ez dute sorgin kriminala alde egiten ikusi.

"Nondik irten da?", galdetzen diot neure buruari.

Eta erantzuna jaso dut zentzu onez: "Sartu den tokitik".

Baina ez dakit nondik.

Goiza aurrera, eta amak bizarra egindako aita lo geratu da gozo-gozo, amatxo behiak jaitsi eta bazkaria egiten jarria da aspaldi, ni leihotik begira, ea anaiak noiz datozen, ez bainaiz gaur eskolara joan, eta aspertzen naiz bakarrik, Marurak irten behar zuen baratzeke atera begira, sorginek ez baitute beti hegan egiten, eta hesiaren erdian dagoen atetik, aterik gabeko sarreratik, handik sartzen ari dira bi trikornio batera, pareja bat, troko berdeen gainean, eta zanpa-zanpa bota handiak pausoka datoz etxera:

"Ama!".

Ama Eulaliak begiratu dit haserre, "zergatik hainbesteko garrasia, haur demonioa!", hau guztia ikusi diot amari begietan, aita lo aulkian, gurpilak geldi..., eta ikusi dut instantean sukaldako ate marroia irekitzen, eta ataburu bete berde goardiazibil, bibote, txarol beltzaren distira sartzen, fusila aurretik, eta atzetik bestea, pareja, eta amari entzuten diot:

"Zer da hemen?".

"Gu, agintariak. Non da Marura!".

"Hemen ez". Ama ez da ikarutzen, baina gaur bai.

"Hona sartzen ikusi dute", bi guardiak fusilak aurretik, aitaren aurrean, aita oraindik lo ernaian, eta ama Eulalia jarri zaie aurrean, aita babesten; kuraiatu da, berean dago berriz, eta fusil bat eskuarekin hartu, kanoia behera jarri, eta esan du, indar handiz baina garrasirik gabe, ohi duen bezala:

"Alde etxe honetatik, eria dagoen nire senarra esnatuko duzue".

"Gu ez gara kapitaina molestatzera etorri".

"Eta zer besterik?".

"Marura".

"Zer egin du sorgin horrek?".

"Emakume bat hil".

Eta goardiazibil lodiak niri bota dit begirada gaizto bat. Amak ere bai. Ni leihotik kontrargitan isilik eta inuxente ikusi naute.

"Lezo", esan dit amak, "ikusi al duzu etxera inor sartzen?".

"Nik ez", egia baita.

"Ez da Marura etxera etorri", esaten dio amak lodikoteari, eta gero ondoan duen argalari.

Elkarri begiratzen diote goardiek.

Eta ezer esan gabe, bat-bateko itzulera eginaz, sukaldetik irten eta goiko geletera igotzen dira. Ama atzetik, argudio gogorrean... Goian sentitzen ditut goardien botak zanpaka, aulkia lurrera, ohearen arrastakako igurtzia, eta hor entzuten dut amaren garrasia:

"Lezo, zatoz!".

Eta ama niri deika dagoela, une berean, hor datoz itzulian eskaileretatik behera zapata soinuak, sartzen da ama aurrena pistola bat eskuan duela niri tiro egiteko keinutan.

"Ama!", egin diot garrasi.

"Nork jarri du arma hau galtzerdi barruan balkoian lehortzen?", galdetzen dit goardia lodiak trikornioaren azpitik, "mi cabo" esaten dion argala ere niri begira, zorrotz...

"Zu ibili zara honetan?", esaten dit ama Eulaliak serio asko.

Eta nik ez dut jarri, komaidios.

Amak orduan pistola kabuari ematen dio esanez:

"Maruraren pistola izango da. Sorgina denez, tximiniatik sartuko zen eta gu konprometitzearren, gaiztakeriaz, sartuko zuen senarraren galtzerdian".

"Noiz jarri dituzu galtzerdiak lehortzen?", galdetzen du zorrozki goardiak, barka, kabuak.

"Atzo".

Argi dago, eta irteten dira goardiazibilak atetik, eta ikusten ditut, lodikotea lehen eta argala gero, baratzetik barrena...

"Lezo!", esnatzen nau amak, "zer dago leiho horretatik kanpora horrenbesteko interesa!, egunen batean Marura sorgina etorriko zaizu baratzetik barrena eta lo harrapatuko zaitu. Hara zer zaintzaile dugun etxe honetan! Ulazianeko Kasildak lan hobe egingo luke".

Poloniarra

Amédé Lyneneko monasterio abandonatuan zortez lortu nuen gelatxotik Square Gutenbergeko solairura aldatu nintzenarekin batera aldatu zitzaidan mundua. Auzo berrian auzokideak dira lehen berrikuntza. Nire hirugarren solairua sukaldeko iturriaren txistuan, lapiko eta plater hotsetan, komuneko ur ponpen leherketetan sentitzen nuen, eta gauetz ni esnatzeraino sortzen ziren zurrunga ozen eta dardarakorretan ere. Hauek asaldatzen ninduten gehien. Oraindik ez nekien gizonetzkoek ala emakumezkoek sortuak ziren. Zer axola!, esaten nuen nirekiko, baina kezkatuta nengoen. Kartoizkoa edo bailitzan mugitzen zen holtza, ohetik besoa luzatu besterik ez nuen dardarakada sentitzeko. Azpian ere banituen bizilagunak, baina ez ziren ia nabaritzen, eta goia hutsa zegoen oraindik. Nire mundua, mundu berria, hirugarren solairu honetara lotuta zegoen etorriz geroztik, baina ez nekien nori. Egin nituen nire estrategian hautemanak, etxe luzangako kaletik begira jarrita ikusi nituen zein gertu zeuden bi leihoak, zabalago batetik bi egin balituzte legez, eta elkarri begira jarrita baleude bezalako angeluan atonduak, halaxe!, eta honexegatik ez nuen nire gelakoa ireki nahi, beste norbaitekin topatuko nintzen beldur. Ezaguna balitz bederen! Edo emakumea, behinik behin. Nahaskeria ezkutu hark ematen zidan hozkia. Pasa nituen bi aste luze korda izpiritual honen tirandurako balantzan, gaixotu nintzen arte. Astindu nintzen, jipoitu nuen nire animoa, zentzugabeko beldur hartatik askatzeko, baina alferrik..., berez, eta naturaltasun handiz, ezustean, lehen aldiz emakumearekin leihoz leiho topo egin nuen arte.

Neuk ikusi nuen une berean agurtua sentitu nintzen.

"Bonjour", beno, "egun on" esan nahi dut, nahiz eta frantses txarrean esana izan. Eta nik: "Egun on". Baina abian desagertu zitzaidan berriz.

Berrogeita bost bat urte bota nizkion.

* * *

Bigarren topaketa eskaileretan egin genuen: ni oin arinez beherantz, hura gorako balantzan, nekez.

"Agur".

"Agur".

Hemendik aurrera sarri ikusten ginen, beti presakako eskaileretan, baina behin neska gazte bat ikusi nuen bere etxebizitzatik mutil batekin irteten. Eta hau bizpahiru astetan zehar suertatu zen, baina beti presako trenea hartzera ihesi balihoaz bezala. Orain hiru pertsona ikusten nituen, beraz, ate beretik irteten. Atea, nire bizilagunena zen, baina, leihoa bezala, hau ere nireari pegatuta zegoen!

Neska oso zen polita!

Jadanik euliak uxatzen hasia nintzen! Nor bizi zen hor, nola bizi ziren hor adineko emakumea, hogeit bat urteko neskatila eta gizon gaztea? Nola ez nituen sentitu nire bizilekutik, ohetik ere! Behin batean neska maleta batekin ikusi nuen behean, etxe atarian. "A!, egun on", nik, eta berak: "A!, egun on..., ni ezkontza Polonia".

Nik ezer galdetu gabe.

Eta neskastila aurrera hizketan gozoki: "Ni ezkontza, Polonia laster, bi aste..., eta gero Brusela". Neska oso zen polita eta gaztea, eta jarraitu nuen gorantz eta hirugarreneko mailartean ikusi nuen andrea, poloniarra!, dena zuriz jantzita; agurtu nuen, eta galdetu nion:

"Bazoaz?".

"Agata..., Agata, ezkontza..., ezkontza Agata, ni neu hemen".

Baina zuriz jantzia zegoen, hala ere.

Nik pegatuak zeuden bi ateetatik ezkerrekoa ireki nuen nire txundiduran eta sartu nintzen neure etxebizitzara. Neronek pentsatu behar izan nuen aukeran. Ez nekien non nengoan, beste nonbait sentitzen bainintzen dagoeneko! Poloniarren familian sartu ninduten! Alabatxoa ezkontzen zaio andreari, nonbait.

Antzik ez bazuten ere!

* * *

Egunak joan ziren, eta behin andreak agurtu ninduen nireari erantsita zegoen leihotik. Aurrez aurre geunden, eta esan nion: "Egun batean gonbidatuko zaitut afaltzera". "O!, ez, mademoasel, esker mila, ez!... ni ez, ez!". Andrea ni bezalakotsua zen altueran, aurpegia oso zuen berezia, pekaz zipriztindua, sudurra luzantza eta muturrean biribildua; begiak zituen oso politak, deigarriak oso!, marroi-berdeak ikusi nituen neuk, aurpegia kementsu eta bizi-bizia eta barre egiten duenean ikusten dira aho barruan urreak!, urrezko hortzak, oso detaile polita, urrea erakusten ari zitzaidala iruditu zitzaidan. Gero, ilea lehor-harrotua zeukan, sukaldeko ipitzaren antzekoa, gorrixka ere bai tarteka. Ez nuen gero ere inoiz ongi orraztua sekula ikusi!.

Baina batez ere hau izan nuen lehen zirrara.

Eta handik astebetera bera etorri zitzaidan bisitara aluminiozko paperetan bilduta zekarren txerriki zati batekin. Atea jo zidan, eta agertu zitzaidan gu bion ateetako baten, nirearen!, erdian. Nik esan nion sartzeko, baina ez zuen ataburutik aurrera pauso bat ere eman; ez zuen ordurarte nik bera gonbidatzerik onartu, eta, hala ere, hara, astebete barru etorri zitzaidan txerrikiarekin. Nik ulertu nuen, noski, leihoko lehen elkarrizketa haren ondorio modura zekarrela belarria bisita txartel gisa!

Oraingo honetan eseri zitzaidan neuk eskainitako aulkian eta kontatu zidan indio amerikarrek filmetan hitz egiten duten tankeran, senarrak txerriak hazten zituela Polonian, eta patatak ereiten, baserritarra zela; beraz, bidaiak egiten dituen andrea da, Luziana du izena, hiru hilabete Bruselara sosa irabaztera etorriaz, baina nola lana hemen poloniarrentzat askotan legez kanpokoa den, "en noir", beltzean, etxeetan garbiketak egiteko baimen osorik ezin duen lortu, "temporel, behin-behineko, hiru hilabetekoa

bakarrik". Poloniara itzultzen dela senarrari, "mari", baserrian laguntzera. Joan-etorrian ibiltzen da, eta berak, Luzianak, hau egiten duen bitartean, besteak, neskatilak, Agatak, "jeune fille" honek egiten ditu bere txandak etxebizitzetako garbiketetan. "Ulertzen?"

"Legez kanpo", esaten diot.

"Bai, deklaratu gabe, ez dugu kontraturik..., ulertzen du mademoaselek, ezta?"

"Bai, noski", esaten diot, lasai dadin.

Eserita dago oraindik, baina lasterkariak irten aurretik zangoak prestatzen dituzten antzera jarriak. Ni, txiripaz, amak postaz bidali zizkidan angula batzuk jaten ari nintzen, eta konturatu abian andrea hizketan ari zen hartan horri begira zegoela, zer jaten ari nintzen, eta batzuk eskaini nizkion platertxo batean proba zitzan. Egia esan ez nuen uste hartuko zituenik, baina, bakoitza bere bisita txartelarekin, poloniarra eta euskalduna, mahaian zeudela, ni angulekin, bera txerriarekin, eman nion probatzeko, eta oso pozik jan zituen, asko gustatu zitzaizkion, gozoak zirela esan zidan, ikusten nuen, bistan zegoen hau, eta honela itzuli zen egun honetan holtzaz beste zegoen bere etxera.

Harrez gero jarrerak aldatu ziren.

Agata bere alaba zen, beraz. Baina ez nintzen galdetzera ausartzen. Behin batean poloniarra bera izan zen leihotik, leihoz leiho, argazki album gorri bat erakutsi zidana, baina oso diskretuki, ni leihoko ezarreran gehiegi behartu gabe. Agerian zegoen Luzianak berak bazekiela bere baitan norainoko atrebentzia hartu. Orduan nik esan nion: "Joango naiz zure etxera argazkiak ikustera", eta berehala erantzun zidan: "Bai, bai". Eta orduan sartu nintzen lehen aldiz bere etxera. Nire atetik irten, ezkerretara itzulia egin, eta ninerako zentzu berean aurrera gero, eta berean nengoan jada! Eta ikusi nituen eskuinetara, lehenbizi, eskailerak. Etxe horretara iristekoak oso goratuak dira hauek, zeren eta obra berezi bat egin dute hor apartamentu bat sortzeko. Normalean hor ez dago apartamenturik, baina egin dutena da zegoena zatitu, nirea bitan banatu, eta beste hau asmatu eta egin. Hala, sartu nintzenean ikusi nituen bi koltxoi, bat bestearen gainean, indibidualak, sofa baten moduan atonduak, sarreran bertan, bai, eta armairu kankailu bat sabai bete, eta gelan sartu eta aurrera pasatzen bazara sartzen zara sukaldea eta komun txikia dauden beste piezan.

Hau da holtzaz besteko lehen aldiz aurkitzen nuen mundua. Eta hemen, koltxoizko sofan, eserita jarri ninduean, eroso oso, erakutsi zizkidan Luzianak sinpleziaz hiruzpalau albumetan pegatuak zeuden argazkiak. Egia esan, ez zidaten gauza asko argitu, nik ez nekien nor ziren, eta esan zidan album haietako munduan aditua zenak: "Agata, Agata, belle fille", eta ulertu nuen orduan Agata zela bere semearekin ezkondu zena. Baina ez, bere frantsesa txarra zenez, berak esplikatu nahi zidana argazkien bitartez indioen modura adierazi zidan: Agata dela bere semearekin ezkondua dagoen neskaren ahizpa!

Ez da gauza bera!

Esan dezagun Luzianak baduela seme bat, guk ezagutzen duguna, seme horrek hartu zuela ezkontzaz neska bat, eta neska horren ahizpa dela Agata. Beraz, guk ikusitako lotura batzuk ekonomikoak dira soilik, ez haragizkoak. Argazkiek beste zerbait ere erakusten zuten: ezkontza ez zen katolikoan modura ospatu, protestanteen modura baizik, eta ezkontzan apaizaren parean, bi neska-mutil zeuden, bikote bakoitzaren atzean gizon bat buruaren gainean koroa bati eusten. Gero erakutsi zizkidan oso

kurtsiak ziren beste argazki batzuk, izarrez betetako fondo urdina, eta bi ezkongaiak erdian. Honela erakutsi zizkidan, hori zen bere mundua. Eta horretan ari zitzaidala aipatu zidan neskaren beraren soinekoa. Nik esan nion: "Hara zer soineko polita!", eta esan zidan: "Bai, soineko horiek ahizpaz ahizpa pasatzen dira; soineko berdina konpontzen, egokitzen dute hamar, hogeia aldiz, baina ahizpa bakoitza soineko berdinarekin, bestearen soinekoarekin, ezkontzen da".

Hala jantzi zuen, nonbait, proban, poloniarrak berak neuk mailartean zuriz jantzia ikusi nuenean. Eta honezkero, pixka bat hobeto ezagutzen dut Luziana.

* * *

Hurrengo egunean, larunbata, bakarrik nengoen etxean eta iluntzen ari zen, aldameneko atea jotzen sentitu nuenean; dagoeneko ikasi nuen hau bereizten, zeren eta hasieran nahasten nituen Luzianaren atea eta nirea, baina orain badakit poloniarraren atea tonu altuxeagoan abesten duela bere erroetan jiratzen duenean: nireak "do" esaten badu, harenak "re". Ez da musika asko jakin behar hau ulertzeko. Ireki nuen, hala ere, nire atea eta aurrean daukat alferrik zain dagoen gizona:

"Pardon", esan dit berehala polonieraz edo bustitako zerbaitetan, "Barka, Luzianaren bila nabil".

"Ez da etxean egongo". (Ikusi dut nonbait gizontzar hau...).

"Hori da, ez dagoela etxean... Hau bistan da, ez ote dakizu noiz itzuliko den?"

"Ez" (Eta lotsagabea da, frantsesa ongi egiten du, jatorrizko azentua osorik gorde badu ere...).

"Beno, sobran nago hemen. Itzultxo bat ematera noa. Etorriko naiz berriz.

"Esango diot etorri zarela".

"Eskerrik asko".

Eta joan da mutu, handi baina arin hala ere, eskailerak behera nor den esan gabe.

Itxi dut neure atea, eta giltzaz. Begiratu dut leihotik, ireki gabe, noski. Ez du ataria utzi, aidanean. Portalean geratuko zen esperoan. Laster ilunduko du. Ez da Luziana gaez ibiltzen den horietakoa, hemen izango da laster. Baina ez zen etorri, eta berandu egin eta oheratu egin nintzen. Kuluxka baten ondoan sentitu nituen biak hizketan holtzaz bestaldean. Entzun nituen zaratatxo, marmar eta armonia guztiak, batzuk lizunak, eta azkenean loak hartu zituen, nonbait, eta... zurrungak hasi!, aspaldi entzuten ez nituen zurrunga ozen eta dardarati haiek, alajaina! Eta loak hartu ninduen neroni. Goizaldera sentitu nuen gizontzarraren ihes baldarra. Igandea ohean pasa nuen, zer entzun. Eta biharamunean, lanera nindoala ia topo egin nuen, askotan bezala, Luzianarekin, bakoitza berera presaka eta hala ere zerbait esaten genion elkarri, "zer bero!" edo "bai, betiko presa", baina astelehen honetan alde egin zidan poloniarrak segundo pare batez. Ez ni atzetik nenbilerako, honela suertatu zelako baizik.

Eta akabo.

Zurrunga geratu zitzaidan trabatua burmuinean! Beste zerbait ere bazen, ez zait orain gogora etortzen zer! Helduko zait. Mantsoa naiz, baina ez ahanzkorra.

Astelehena beti egiten zait astuna lanean, baina honako honetan dena aldrebes irten zitzaidan. Arratsaldez etxeratu nintzenean bi gizon zeuden atarian, antikuarioaren dendako ate korrokailduaren aurrean, baina ez erakusleihora begira, kanporantz baino, norbaiten zain. Bien artetik atarian sartu nintzenean, ezer esan gabe, jarraian igo zituzten atzetik eskailerak. Igo nintzen hirugarrenera, eta haiek ere bai, atzetik; ireki nuen neure ate erdi hura giltzaz, ikara bizian orain, eta bietan altuena barrena sartu zitzaidan, lotsagabe: "Barkatu", esan zidan frantses garbian, bestea mailartean geratu zen hartan, "zu ez zara Luziana Lemberg anderea".

"Ez, Luziana anderea aldamenean bizi da, ez da orain etxean egongo.

"Ez dago. Noiz etortzen da?"

"Ilunabarrean".

"Ez da eguerdian etxeratzen..."

"Ez dut uste, neroni ez naiz etortzen, ez nago ziur".

"Noiztik bizi zara etxe honetan?"

"Aldatu berria naiz, orain hilabete".

"Eskerrik asko, barkatu", eta gizona irten eta biak jaitsi ziren hizketan.

Poliziak ziren, noski. Luzianaren baimen gabeko lanak direla eta, segurki.

Hala geratu nintzen arrats hartan poloniarra noiz etxeratuko, abisua pasatzeko zain. Eta harritzekoa, ez zen agertu. Gaua luze egin zitzaidan, alferrik. Astearte goizaldean lanerako prestatzen ari nintzela sentitu nituen aldamenean oin hotsak. Irten nintzen eta jo nion atea; negar-zotinka agertu zitzaidan Luziana: "Malheur, malheur", zoritxarra!

"Zer bada?"

Eta hipaka adierazi zidan Luzianak garbiketak egiten zituen etxeko nagusia eraman zutela bart bere aurrean.

"Poliziak?"

"Ez, bi gaizkilek, behartuta, ahoa eta begiak estali zizkietela, kotxe bateko atzean sartu..."

"Bat jaka beltz batez jantzia?"

"Bai..., bestea atorra, alkandora zuria".

"Horixe..."

Bi gizon berak!

Esan nion hemen egon zirela hara joan aurretik.

Larunbat gauean berarekin oheratu zen gizontzarrak galdetzeko gogoia etorri zitzaidan, eta azkenean egin nuen:

"Hemen larunbat gauetz lo egin zuenak ere izan zuen zerikusirik?"

"Ez, Ladislao laguna dut, semearen ezkontzan ere egon zen..."

Orduan konturatu nintzen argazkietatik ezagutzen nuela gizona, baina isildu egin nintzen.

"Ladislao, txanda egiten zidan neskatilaren aita da, alarguna bera...", adierazi zidan Luzianak, argigarri, badaezpada ere. Politikan sartua ere ibilia zela, hau zen berari gustatzen ez zitzaion gauza bakarra!, egin zuen iruzkina bere kasa bezala, eta bahitu zuten gizonaz, bere nagusiaz hizketan negarrez jarri zitzaidan berriz. Nik galdetu nion orduan ea poliziari parte eman zioten.

"Polizia ez!", irten zitzaion garrasia.

Egia esan, ez nekien arazoa nola hartu, eta ikaratu egin nintzen, ez bainuen, neroni bertoko izan gabe, poloniarren arazo ilun batean neure burua sartuta ikusi nahi, eta "agur", eta alde egin nuen holtzaz bestaldera, nire lekura, honelako arriskueta sarri egin izan dudana bezala. Nire izaera da honelakoa. Telebistako filmetan ere zerbaitek, eszena batek, urduritzen ninduenan gelatik hanka egiten nuen, aita algara bizian, eta honek dei egin behar izaten zidan itzul nendin, gertatu behar zuena gertatua zela esanaz! Honela. Bada, oraingo honetan, poloniarra bakarrik berean utzi, eta neu neurean nengoen egoera soseguz aztertzen: ni ezagutu ninduten aurreneko bi gizonak, bahitzaileak andreak deskribatu zizkidanez, eta ezagutu ninduen gizontzarrak ere; bahitua ez nuen ezagutzen, eta ez nekien izenez ere nor zen. Agian bertoko politikari ezaguna zen eta ekintzak oihartzun handia sortuko zuen laster, prentsan ere! Zitekeena zen... Joan nintzen itzulian holtzaz harantz, ez nuen aterik jo ere egin, sartu nintzen eta andrea koltxoien gainean botata ikusi nuen, eta galdetu nion, ea bahitu zuten gizona nor zen.

"Branicky..., monsieur Michel Branicky".

"Poloniarra?".

"Bai". Lasaitu nintzen. "Baina aspaldi hona etorria eta gaur hemengo diputatu agintari dena, poloniarren alde asko egiten duena". Larritzen hasi nintzen berriz!

"Ugazaba honela eramaten ikusi eta gero, bahiketa bat izan daiteke eta, zeuk zer egin duzu?". "Etxera etorri!, zeu zara lekuko, etxera etorri, zer egingo nuen besterik?".

"Poliziara joan".

"Ni neu poliziara?!"

Andre honek ez du ezer ulertu! Ni ahalegindu naiz bahiketa bat zer den azaltzen, baina ez da arazoaz jabetzen, izutu egin dut gehiago Luziana, baina ez kontzientziatu. Galdetu diot behin eta berriz ea politikan sartua dabilen gizontzarra etxe hartan agertu den, eta ezetz, ea hemen berarekin egon denenean bere nagusiaz zerbait galdetu izan dion inoiz, ezagutzen duen, eta harritura begiratu dit, ea nola dakidan hori, zergatik galdetzen diodan Ladislaoz hau, eta malkoak ere lehortu zaizkio abian eta begi politik argitu, berdea piztu zaio asko. Zalantza baten betekara ikusi diot, eta ahoa ireki zaio, beheko ezpaina erori. Izututa dago, haur bat bezalaxe hurbildu zait eta besotik hartura esan dit:

"Ez diozu inori esango?".

"Esan, zer?".

"Ladislaoen eta nire arteko harremanaz".

"Ez, baina bahiketarekin zerikusirik ba al du?".

"Ez dakit", eta egia darie begi hauei, eta, berriz, ez dakit Luzianak bahiketa honetan dagoen jokoaz ezer ulertu duen oraindik.

Ni etxeratu, holtzaz bestaldera pasa, alegia, eta irratia jarri dut martxan, oherako erabiltzen dudana belarrietako entzungailuekin. Orduan konturatu naiz lanari huts egin diodala! Desorekatu nau andere honek!, gaixotu ere egin naiz derrepente! Aitzakia badut..., eta zortzietako berrien zain geratu naiz. Sarreran ez dute bahiketarik aipatu, eta ordu erdi bat itxaron dut, azkenera arte, eta eguneroko eguraldi ona iragarri eta gero amaitu dira berriak. Ez dute bahiketarik aipa. Zer ari zait andre hau kontaktzen? Baina berria oraindik zabaldu gabe egotea posible da. Diputatua bakarrik bizi bada eta,

noranahi eraman dutela, lekuko bakarra, Luziana, zuzenean etxera negar egitera etorri bada, berria ezin daiteke zabaldu. Askotan bahitzaileek berek egiten dute zuzenean aitorpena komunikabideetara. Eta jarri naiz patatak zuritzen irratitik komedia bat ematen ari direla, hau noiz amaitu zain eta esaten diputatu bat bahitua izan dela. Honela gertatzen dira gauzak..., zabaltzen direnean, ez bestela, noski, eta kotxean Poloniara badaramate momentu honetan, ez daki poliziak ezer Luzianak berak salatzen ez badu, kaleko telefonoz poliziara deituz edo komisariara pertsonalki joan eta salaketa eginaz..., eta poloniarrek egiten ez badu..., edo nik neuk!, neronek, gauza bera egiten ez badut!

Baina nekatua ere banengoen ezer egin gabe.

Egun txarra eta egiatan gaixo pasa nuen. Ez nintzen aldamenara agertu. Adi egon nintzen, inor etortzen bazen ere. Luziana ez zen irten, sentitu nuen sukaldean. Irratia aurrera, alferrik!

Ongi lo egin nuen gauez.

Hurrengo goizean ez nuen, ohi bezala, poloniarren presakako pausorik entzun; prestatu nintzen lanerako, belarria holtzaz bestalde jarria nuela, eta hartu nuen zurrupadan kafesnea, jaitsi eskailerak, hutsak!, poloniarra banitu bailitzan! Eta oraindik ez banekien ere, hemen eten ziren betiko haren berriak.

Honen ordeaz, asteburu hartan beheko bizitzara etorri ziren bi haurren borrokak eta negarrak heltzen hasi zitzaizkidan bigarren solairutik. Bi zahartxoek ilobak, noski, hala jakin nuen laster, baina poloniarrik ez, ezta neskato polita ere. Aldatu zen etxebizitzako arnasa guztia, zahartu egin zen! Nik entzuten nituen irratiko berriak, irakurtzen paperetan zetozenak, baina ez zen egun haietan eta gero bahiketaren berririk izan Bruselan.

Bi hilabete eta erdi geroago, justu, ostiral batez, postariak Nederlandako tarjetatxo bat ekarri zidan arte, eta han, itsas bazter politaren argazkiaz, bestaldean zetorren mezu hau irakurri ahal izan nuen, kostata: "Amie". "Adiskide Enara, bizi txerriekin berriz, hemen bidaia, ongi, zu ere bai? Agata mari." Eta L handi batekin sinatua: "Luziana".

Eta hara nola misterioak jarraitzen duen oraindik!

Oraindik, diot, zeren eta hilabete geroago lanetik nentorrela deitu dit, eta lehen aldiz, ez baitut ezagutzen antikuaria, baina ni dendako atearen aurretik pasatzerakoan deitu dit honek atariko denda zulotik:

"Mademoiselle, s'il vous plait...", andereino, mesedez..., eta irten zait, "barka atrebentzia, antikuaria nauzu, Antoine Lemercier, zuri zerbitzeko. Nola zaude?", eta eskua eman dit ile urdineko zahartxoak, "eta barka berriz, zeuk ezagutzen zenuen noski hirugarreneko zure bizilaguna izan zen poloniarra".

"Bai".

"Bada, berauxe ikusi dut atzo".

"Atzo? Non?", piztu nau, ez dut gizon hau maite, ez dut inoiz agurtu ere egin, baina berriak erretu nau guztiz.

"Bada egia esango dizut, ni neu poliziako inspektore erretiratua nauzu eta herenegun joan behar izan nuen Kartzela Nagusira zerikusia izan nuen kasu baten aholkulari gisa, eta zein ikusiko eta Madame Luziana Lemberg presondegitik irteten!, eta agurtu ere egin nuen, ea nondik nora berriz hemen, eta..., ez dakit dakizun hemendik hanka eginda ibili dela...

"Ez dakit ezer!".

"Neuk esaten dizut, eta barka, baina...", ez zait tonua gustatu, eta hala ere sua erantsi balit bezala egin diot galdera...

"Zer gertatu zitzaion, bada?".

"Badakizu atzeritar asko hemen, eta barka zure galderari erantzuteko hau esaten badizut, lanean legezko baimena lortu gabe jartzen direla, askotan ez dakitelako besterik egiten, erakutsi ez zaielako!, ezagutzen ditut kasuak. Eta Madame Luziana Lemberg..., halaxe ari zen!, zer nahi duzu!, 'ce n'etait pas sa faute, que voulez vous', zer nahi duzu, eta..., legearen aurkako huts hau beste batekin lotu zuen, ma foi, c'est la vie". Berriz egiten ari zait gizona antipatikoa, zuria!, baina utzi diot jarraitzen, eta bi hortz falta zaizkion zahartxoari utzi diot esaten: "Bada, gizalagun bat etortzen zitzaion noizbehinka, aspaldiko adiskide bat, aidanez, eta honera, Belgikara, orain urte asko etorria zegoena. Bada, hala behar eta hemen egin zuten berriz topo, eta... Ez zen fitxa ona Lemberg anderearentzat, zeren eta bahiketa batean, ondo entzun duzu, andereño Enara...", nire izenaz aipatu nau! "...gizon honek bahitu zuen, beste birekin lotuta, diputatu nagusi den Honorable Michel Branicky jauna orain aste batzuk!", Ni sutan nago jakinminaz, "eta harrapatu egin zuten abian! Luzianak ezer ez zekiela, hau da egia berdaderoa! Baina hala ere bota dute Belgikatik, eta adio bere lana, adio dena! Pena da, langilea eta garbia zen eta anderea. Honez gero irtena da Belgikatik. Zer iruditzen zaizu, andereino?".

"Bidegabea!".

"Arrazoi duzu, aitortu behar dizut. Egiatan, justizia itsua da askotan, baina itsuek ere badute noizbehinka arrazoi, itsu berak sartuko baitu hogei urteko kartzelan andrea engainatu zuen gizonlagun doilorra".

"Egin dezala berton nahi adina zurrunga", esan dut eskaileran gora abiaturik. Antikuariora aho zabalik utzi dut.

Hau gertatu zitzaidan orain astebete, eta pentsatu nuen, pena handiz, adio poloniarra, ez du zortetik izan, merezi badu ere... Eta gaur, denbora errealean, nor aurkituko mailartean lanetik heldu naizenean, eta Agata, neska polita, ni ailegatzen eta hau etxetik irteten! Bizirik ikusi dut berriz hirugarren solairua! Aleluia! "Non da Luziana?". "Hemen", esan dit, "eguerdian heldu gara Poloniatik, Branicky jaunak lortu digu lanerako baimena". Eta hemen dator Luziana bera bere ate erditik kanpo, ile kalpar gorria airean, ematen dit musu handi eta bero bat, aurre-aurrean daukat, eta Agata eskailerak jaisten ari den honetan esan dit Luzianak presaka, hitz egiten duen bezala, eta dena ulertzen diot orain, denaren berri dudan honetan, Belgikatik bota ondoren konturatu zirela agintariak Luzianak ez zuela zerikusirik izan bahiketarekin eta diputatu jaunak berak konpondu zizkiela paperak berton, Belgikan, lanean jarraitzeko.

Zoriontsu orain, eta: "Henry!", deitzen dio norbaiti etxe barruan, eta hemen dator adineko ilegorri handi bat atera, "hau da aipatzen nizun Enara euskalduna, nire bizilaguna", esaten dio ni aurkezten, "...eta hau da nire senarra, etorri da lehen aldiz, Belgika ezagutzera, agian geratuko da..., baina baserritar poloniarrek lurra dute maite, eta animaliak, ez dakit hiria eta hemengo lanak gustatuko zaizkion...".

"Ni Polonia hobea", dio irribarre apal batez. Eta gizonaren esku zabal handiak estutu dit nire txikia, gizon libre bezala, poloniarrek hizketan jarraitzen duen bitartean: "Biok

itzuliko gara Poloniara... Hau abentura bat, lurra han dago... Hemen, Agata, jeune, gaztea, eta mari, bere gizon berria!".

Eta konturatu naiz Luziana ni agur esatera etorri dela, senar eta guzti; ez dudala gehiago ikusiko.

Akordatzea ahaztu

Aurrezki kutxa betea zegoen; astelehena zelako, agian: igandea gastatzeko eta biharamuna hutsartea betetzeko. Baina nola jartzen dituzte diru-makina hauek sartu-irteneko pasabide indiskretu eta neketsu hauetan! Luzarorako dago aurrean dudan andre hau, txartela poltsatik atera eta sartu, sartu eta atera..., eta aldamenean daraman gizonari, berea izango al du!, begirada larriak botaz eta senarra berarekin ez balitz bezala, lotsagabe, gora begira... Atzera ere bai, niri hain xuxen! Eta nik irribarretxo batekin erantzun, gizona hain bakar eta urduri senti ez dadin..., baina gizonak ihes egin dit begietatik jauzi batez beste norabait.

Min eman dit ausentziak, ez dakit zergatik.

Eta zertaz pentsa ez dakidan honetan, zaharraren txapelak eman du eskuz bira azkar bat, eta goian, airean, iraun duen instante horretan burua itzuli eta begi gris apal haiek bi keinu egin dizkidate, Higerko faroak bezain azkar eta garbi, da-da, mezu ezkutua barruan dutela, eta niri, berriz, ustekabean irribarretxo bat irten zait, emakumeoi sarri jalgiten zaigun bezala; eta oker den ezer adierazi nahi gabe... Bestalde, ez dut nik zahartxo horren adina, nire aitarena ez darabil urrun, eta honek segurantza apur bat ematen dit, bake bera baitabil begi gris apal horietan eta berdexkak diren aitarenetan.

Sosegua bide luze hauetan sor daiteke, agian...

Andrea berean dago, txartela poltsatxo beltzean sartu eta atera, atera eta sartu, aurretik dauzkan hiru buruei so... Mantso baitoaz, oso. Pantailaren aurrera heldu den ilegorriak azkar darabiltza hatzak zenbakietan, harrigarria!, eta makinaren "rinki-rinkirak", eta neroni ikusten ari naizen bileteak irteten ari zaizkio leihatilatik!, Kutxako mutilak lehen aldiz erakutsi zion bezala. Hauek asmakizunak! Bikoteari dagokion zenbakia ikasi du bakoitzak bere buruz, eta hau da kontuan eduki behar dena, bi buru lau zifrako zenbakia, Maria eta Juxto izenen orde, 4456; bi 4ko, eta jarraian datozen 5 eta 6. Oso da erraza! Gu bion aurrean egin zigun Kaxako mutilak lehen aldiz erakuspena, bitan niri eginarazi zidan, nire hatzez, eta egin nuen. Ongi! Juxto, ez zen ausartu. Urduri jarri zen oso, eta kito. Orain biok gaude, baina badakit senarrak ez didala lagunduko, ez baita gauza. Hala ere ez dut bakarrik egin nahi, prakak ondoan dauzkadala asko lasaitzen naiz neroni; ohituak gaude etxetik kanpo gauzak batera egiten. Hala, zenbakia, esate baterako, biak ikasi dugu batera; ohean ere galdetu dit bart gizonak, ea bi 4 eta gero 56 den, eta konforme, nik, egoteko lasai, baina ia loak hartu nauenean tiratzen nau berriro, ea 42 eta 56 den... Ezetz, aurrena bi 4 direla: 44, eta gero segidako 56. Baina gero ez zait bada "lau, lau, bost eta sei" errosarioa bezala esaten hasi!?

Ez dugu lorik egin.

Eta gaur, egunabar, egin ditugu banan-banan zenbakiak paperean, idatzita zeudenen gain jarrita! Kafesnea hartu, aitagure bat elkarrekin esan, eta hala indartuta abiatu gara etxetik.

Etxeberrietatik Kutxaraino bide luzea isilik egin eta gero, Kutxara hurbiltzerakoan bertan Juxto arrimatzen hasi zait, nire ezkerreko aldetik, hain zuzen. "Zer nahi duzu?", esan diot. Senarra isilik, eta nire numeroa buruan errepatatzen ari naizela gizonak

belarriko xulora: "Bi 4 eta 5, 6". Eta ondo esana! "Bai", esan diot, "ongi ari zara, ez ahaztu!". Eta lasaitu nau. Nahi duenean gizona saiatzen da eta bonbila pizten zaio.

"Aizu, Maria, gera zaitez...", eta justu Kutxaren sarreran geratzen da bera, eta ni, Maria, ere, eta esaten dit gizonak eskuin eskuko hatz erakuslearekin, sententzioso oso: "Aurkitu dut zenbakiak ondo dauden edo ez jakiteko sistima". "Bai?, esan". "Ba, zenbakiak batu: lau eta lau zortzi, gehi bost, hamahiru, eta sei: hemeretzi". "Nola?!". "Esan bezala". "Orain nahastu nauzu!", Mariak. "Ba, erraza da!" "Utz nazazu bakean nire bidetik, saltsero alena!".

"Hara, onbeharrez esan, eta huts!", dio Justok, adoregabe berriz.

Emaztea aurrera doa, beti bezala, eta sartzen zaio Kutxa barrura, atzera begiratu ere gabe. Honek eman dio Juxtori amorrua, andreak berearekin irten nahi duenean beti egiten dio honelako jokaldia, mekaben!

Andreak lotsagabe galdetu eta lortu du dagokion lerroa, lau bezero aurretik dituela. Gero begiratzen dio senarrari agindua darioten begiekin esanaz: "Zatoz", eta ni, Juxto, hurbildu natzaio, emaztearen ezkeraldetik, eta Mariak besotik heldu dit eta pasatzen nau astindu batez bere eskuinaldera, eta neu uzkurto egin naiz, jendeak ez dezan pentsa gu beti haserre ibiltzen garenik, ez baita egia.

"Juxto!", esaten dit emazteak ahapeka baina fermu, "ez ezazu suma hori ahaztu!".

Justo, zer erantzun ez dakiela geratu da.

Lerroan lehendabizi zegoenak lortu du bere dirua eta badoa. Hiru geratzen dira orain aurrean: morena, ile gorria, eta gizon kaskurdina, nire aurrean daukadana... Ni naiz, Justo, kalkulu hauek egiten ari naizena... Emaztea nire ezkerretan, aurpegia zurbil, arduratsu..., eta esaten diot, apur bat alaitu dadin, beti mutur horrekin!..., eta bota diot txantxan belarrira:

"Animo, Maria, diru hori gurea da eta!".

Zeharka bota didan begiradak belarria erre dit!

"Txantxetan da eta!", esan diot, hala baita! Eta Mariaren atzapar txiki xuri demonio hark ipurdian txatxamurkada egin ez dit bada? Eta ezuste honetan nik: "Ai!", haur batek bezala, eta jendea begira jarri zaigunean, ez dit bada Mariak alde egiten!, lerrotik at!, atzealdera, eta geratzen naiz bakarrik, bakarrik sentitzen naiz lerroan!, begiratzen diot izututa, sokorro eske, atzean daukagun, orain daukadan, begi berdedun emakumeari, begi berdeak irribarrez eta bat-batean niri esaten, ahopean:

"Joan zaizu emaztea?".

Nik baietz, hitzak ahoskatzeko gauza ez banaiz ere.

Emaztekiak, segi, eta orain nire belarriaren atzetik, ni aurrean diru-makina daukadala ohartu bainaiz eta Maria falta... Zer egin ez dakidala... Orain zenbakiak buruan ditud, baina txarteltxoa falta! Mariak eramana! Bilatu dut jendartean sarrera aldera, eta han dago zorrozki niri begira, eta esaten bezala: "Orain egin ezak nahi duana, hor hago txanpon-makinaren aurrean".

Nik, etortzeko esaten diot begiekin eta hatza kizkurtuz eta larri!

Ezet esaten dit buru txiki hark, nahi dudana egiteko.

Eta nik zer egingo dut bada txartelik gabe, zenbakiak burutik nora joan zaizkidan ez dakidala... Gainera lotsa pasatzen ari gara, zeren eta nire atzeko emakumea eta Mariaren

ondoan dagoen gizon handia dagoeneko biak harrituta daude, nor nori deitzen ari garen ez dakitela, eta zertarako eta zergatik!

Orduan, unetxo honetan gertatu den; ezin daiteke laburki konta: leihatilatik bat-batean, "tirri-tarra... raaa!", dirua irten denean, andre morenak bere poltsan paperezko sosak sartu eta abian irten da jendartetik; hurrengo bezeroa, ilegorria, numerotan dabilen une berean ikusi dut zeharka Maria jendartean datorrela eta nire ondora heldu eta aurea hartzen didala, eta aurreko gizon kaskazuriari galdetzen dio ea zer zenbaki duen, lotsagabe. Gizonak esan nahi ez, eta galdezka nire emazteari, ea zergatik jakin behar duen berea den zenbakia, hori pribatua dela. Eta nire emazteak, Mariak, jakin nahi duela, gizonaren atzetik datorren zenbakia gurea delako, Mariarena eta nirea! Nire andrea erotu duk, esaten dut boz goraz, eta ileurdinak ere baietz, andrea, nire emaztea, erotu dela...

Ni atzera begira jarri eta begi berdedunari zer deritzon galdezka ari naizela, hor ikusten dut aurreko kaskaurdina bere diruarekin alde egiten eta nire emaztea, ausarta beti!, baina orain beldurtuta, niri begira:

"Juxto!".

Juxto, ni, konturatu naiz zenbakiak orain argitu behar ditugula, eta ez dakit nolatan, baina etorri egin zaizkit zenbakiak argi-argi: 4, 4 eta berehala 5, 6. Eta hor ari da Maria zenbakiak makinan jartzen, mantso baina ziur... Mirakulua!, eta minutu luze bat gero, jendea marmarrean hasi den horretan, egin du makinak: "rist, rast... ra ra". Eta nire andreak:

"Hara, Justo, atera dela!".

"Zenbat?".

"Zenbat, zer? 44 eta 56".

"Baina zenbat pezeta?".

"Hori ere jarri behar ahal da?".

"Noski".

"Beno, hori hurrengo batean egingo dugu, gaurkoz nahikoa dugu, makina mugiarazi dugu behintzat".

"Ogia erosteko lain ba al duzu?".

"Ez, baina gaurkoz ez naiz makina horren hagineta berriz sartuko. Lehengo sistima zen onena: Joxe Mari Paxkualaren semeari libreta eman, eta hark zuk eskatzen zenuen diru justua ematen zizun prestu asko! Honenbesteko zirkurik muntatu gabe!".

Soldaduzkako jazarpenak

Gerra piztu zutenean, kaian harrapatu ninduten aita eta bi anaia zaharragoekin.

Eta amatxo, noski.

Familia guztia.

Baina gerra aipatzen dudanean beti gizonezkoek ari naiz, emakumezkoak ez baitituzte armadan kontatzen. "Nola, bestela", aitak esaten zuen bezala, "neurtuko zizkietek bularrak, guri bezala! Eta bularra inportantea duk soldaduzkan, adina, balorea eta potroak berezko suposatzen zaizkien bezala!". Etxean arrantza eskasa eta tristeziak jota geunden bakoitzean haxe esaten zuen. Berehala jartzen ginen algara bizian, eta sardina zaharren bila bidaltzen ninduten Anixetagan, hau zen eta zorrean ematen zigun bakarra, eta sei librako biribila Maria panaderak eguneroko ogi honen truke tokatzen zen arraina: bokarta bazen, bokarta; sardinetan zorterik bazen, sardinak, eta zorte hobekoa txipiroia bazen, txipiroiak.

Honela ziren kaian gauzak gerraurrean.

Eta aitaren soldadutza, ez dakit zergatik, beti trufan aipatzen genion, zeren eta Afrikan sufritua omen zuen, lehoi eta guzti..., gezurretan seguraski!

Nola, bestela, gure aita Afrikan soldadu!

Ba, ez dakit egia zelako edo, baina oraingo gerran berehala fusila hartu zuena aita izan zen; hartu... jarri egingo zioten atzamarretan... Hasieran, tarteko arrantzan jarraitzeko esan zioten, jan ere egin behar baitzen!, baina gero, gorriak joan eta militarrek sartu zirenean egun batean: "Lontxo Otaño", aguazil militarrek, eta frentera eramane zuten. Bakarrik geratu ginen ama bi anaiak eta neroni, Gaxpar, hamalau urte nituela. Denak enteratu ziren gero gerra galdu zela, eta portuan ere guztiak gure aita frentean galdu zela. Ni ez ninduten itsasora bidali; enkargutarako ere behar zuen gure amak norbait, ogia ekarri, arraina tabernara eramane, halakori, legatza etxera eramane. Bi anaia zaharrenek, Joxek eta Estanixek, jarraitu zuten arrantzan, eta hutsik etortzen zirenean, gure aita zenaren txisteak falta zitzaizkigun. Behin ni aitarenak esatera ausartu nintzen bezain laster eman zidan amak zapla!, masaileko ikaragarria.

Joxe anaia, alargunaren seme nagusia zenez, soldaduzkatik libratu zen; Estanix bai, hogeita bat bete zituenean, eramane zuten, baina zorte handiarekin, Burgoseraino bakarrik, eta hilean behin etxera etortzen zela! Eta urteak pasa eta niri ere tokatu zitzaidan, eta ama negarrez ibili zen hara eta hona, ea txikiena libratzen zioten sikera, zeren eta bitarte honetan zaharrena, Joxe, etxetik kanpora ezkondu baitzen.

Eta ni, Gaxpar..., etxean hartu genuen militarren papera, agindu bezala, San Jose bezperan, martxoak 18, La Sala plazako bandera zegoenera joateko. Eta joan nintzen, ginen, gaztez bete zen hura, eta nire lagun batzuk ere bai, kaiko mutilak, eskola guztia elkarrekin egin genuenok, ba, orain soldaduzkara denok batera!... Baina norbaitek esan zidan, ez garelako lagunak izateagatik elkarrekin joango, bakoitzak bere zorte numeroa izango duela zozketan... Han geunden izerditan; gela txikia edo soldadu asko, eta hemen ere botako luke aita zenak barregarri den esaldiren bat...

Hura, Afrikan egona, argiegia zen gauzak txantxetan hartzeko!

Ez zen erraza halako aita bat aurkitzea.

Marmar bero hura militar batek isilarazi zuen; ez zen handia tamainaz, baina bai harro eta zitala! Isiltzeko eta isiltzeko, eta kosta zitzaion hainbeste gazte kolpetik isilarazten. Azkenean lortu zuen kaxa baten gainera igo eta han goitik ahots mehe hark eskatzen zuena. Eta, hala, seko isilik geundela, izerditan baina isilik, hasi zen numeroak eta izenak esaten... Jesus Ozaeta... "Hemen", eta Burgos. Nikolax Larburu... "Hemen", eta Donostiara, etxean! Benito Loidi..., hara, eta segi... Gu izerditan, eta militarra, "Brigada" deitzen diotela militar txikiei esan zidan ondoan nuen Ixidrok, elkarrekin baikeunden, eta hark nik baino gehiago jakin..., segi, eta ni neure izenaren zain, zain, hor nengoela esateko: "hemen" eta nire patua zein zen jakiteko irrika bizian... Ari zen gizontxoakaxaren gainean, norbait balitz bezala..., "Gaspar Uranga...". Baliteke hurrengoazate... Baina bigarren aldiz, eta haserre, "Gaspar Uranga!", eta nire lagunetako batek, Juanitok, esaten dit:

"Hi haiz, Gaxpar".

Eta ni gizontxoari begira nengoen, eta entzuten nion "Gaspar Uranga", eta ni ez bainintzen hori...

"Baietz, babua! Gaxpar hori hi haiz".

"Nola ni?".

"Baietz", eta esaten dio ahots goraz militarri: "Este es". Beste lagunek, ezetz, hura betiko Otaño dela, baina dagoeneko lagunak besotik hartuta kaxaren gainean zutik zegoen haraino naramala, eta nik ezetz, baina hor nindoan, hor narama Juanito lagunak...

"Zer pasatzen da", esan zuen haserre militarrek, "bere izenik ere ez al daki, edo zer?".

Ni militarra baino handiagoa naiz, igualean, baina kaxa haren gainean dagoela goitik behera botatzen dit:

"Zuk Gaspar Uranga izena duzu?".

"Ez, ni Gaspar Otaño, beti!".

Baina bitartean Juanito igo zaio Brigadari belarriraino eta konfesatzen bezala esaten dio zerbait.

"A!", dio Brigadak niri begira, orain irribarrez, "beno, zu hemendik aurrera Gaxpar Uranga izango zara armadan..., Afrika".

Eta jarraitzen du: Emiliano Basañez...

Nik ez dut ezer ulertu, baina Juanitok besotik hartuta Afrikara tokatu zaidala, eta ia poztu ere egin nintzen aitaren bidea egiteko asmo honekin... Baina orain bere lagunak barrez zeuden Juanitoren kontu batekin, eta Gaxpar, ni, hurbildu nintzenean isildu! Zergatik hau!, diot nik, Gaxparrek, eta bakarrik utzi nautenez, hango beroa uzteko asmoz abiadan eskailerak jaitsi eta plazatik etxera malda behera ariniketan sartzen natzaio amari sukaldera:

"Ama, zer izen dut nik?".

"Zergatik diozu honelakorik?".

"Nire izen propioa!".

"Gaxpar, zergatik?".

"Baina, zer gehiago?".

"Zer gehiago? Ai ama!", eta etorri eta hartzen nau bere beso lodi laburretan, eta estutu nauenean konturatu naiz mingarria den zerbait datorkidala amaren aldetik... "Otaño diozu?"

"Bai, aita eta anaiak bezala. Zer da?"

Ez dut ulertu oraindik traba.

Amak badaki, bai, badakit neuk ongi zer den, eta beldurrez aspaldi, baina ezin diot orain esan, ez zait irteten besarkada estu hau baino. "Seme" diot azkenean, "zu aitaren eta nire semea zera jaio zinenetik, baina aldamenen bizi ziren Uranga, ezkonberriak, zu izan zintuzten orain hogeitun urte, eta zure ama hil egin zen. Nork hartuko zintuen orduan guk baino hobeto, eta harrezkero legez ere gure semea zara. Ulertzen, txikitxo?"

Amaren beso gozo haietatik askatu egin naiz, eta joaten utzi dit, ulertzen duelako... "Zergatik ez didazue hau lehenago esan?"

"Ez dugu eta inoiz horrelakorik pentsatu, auzoak, zure lagunak, eskolak, denontzat Otaño izan zara beti..."

"Baina badakite... Juanitok bazekien!"

"Kasualitatez".

"Eta nire aita..., bizi al da?"

"Ez dakit. Emaztea..., zure ama, hil zitzaion hartan bertan joan zen betiko... Ameriketara edo. Baina zu gurea zara, ez duzu besterik behar!"

Gaxpar eguerdian ez zen bazkaritara agertu, lotara ere ez. Hurrengo egunean ama Paka negarrez joan zen Komandantziara bere semearen parte ematera, denek gomendatu zioten bezala... Joan ez balitz hobe!... Haserretu ziren, aulki batean eserarazi eta itaunketa larri batean jarri zuten Paka gaixoa, eta dena hustu zutenean, esan zioten:

"Orain, badakizu, 'busca y captura' paradan jarriko dugu zure semea... Gaspar Uranga!"

"Eta hori, zer da?"

"Bilaketa zehatza jarriko da martxan, eta harrapatzen dugun bezain laster..."

"Ez hil, mesedez!"

"Ez, hil ez", dio, garrasiak kupituta, sarjentuak.

"Jo?"

"Jo ere ez".

"Zer, orduan?"

"Ziegan sartuko dute". Ahotsa jaitsi zaio... "Zer nahi duzu bada guk egitea, zure semeak legearen kontrakoa egiten badu, arautegi militarra ezarri baino?"

"Ba, barkatu oraingoz, eta gehiago ez egiteko esan... Mutiko ona da, ez du berriz egingo".

"Armada ez da ama, zure semea ez da aingerua... Gauzak honela dira, zer nahi duzu?"

"Urrikalpen apur bat".

"Hori ez dago arau militarrean".

Bat-batean Paka altxatu da eta ariniketan alde egin du kalerantz, militarren oharrei kasurik egin gabe. Ateko guardia berak ere deitu dio, "alto!", baina ez da gehiagora ausartu, sarjentuaren ahots irmoak fusila besagainera igoarazi badio ere... Eta Paka zabal-biribilak martxa handian jaitsi du kalea, eta portuan gainean dagoen etxe orlegi

batera igo da eskaileratik, atearen aurrean geratu arte. Pakak ez du haize gehiago biriketan. Atea ireki diotenean don Eugenio ikusi du, beti bezain irribarretsu...

"Zer dugu berri, Paka? Ez dakarzu aurpegi ona. Sar zaitetz..., ongi zaude?"

"Bai jauna".

Apaizak ezetz dio buruarekin, ezetz, eta andrea aulkian eserarazi, berak beste bat bereganatu eta esertzen zaio andreari aurrean, serio:

"Zer da okerra?"

"Dena".

"Zer da dena?"

"Mutikoa, Gaxpar".

"Badakit hainbeste, baina hau pasako zaio; noizbait jakin behar zuen".

"Baina atzoz gero ez da agertu; eta beldur naiz, neronek okertu dudala gehiago!

"Zer gehiago?"

"Urangatarrena dela aitortu nion atzoko presaz, baina badakizu... hau ez dela osorik hala!

"Bai, noski".

"Neuk egia esan behar nion".

"Hala da, ez da haurra", dio apaizak.

"Horixe, baina konturatu nintzen bi seme nagusiak minduko nituela!".

"Bi zaharrenek aita berea dute".

"Bai, baina ama?"

"Bai, zu zaituzte ama, Paka.

"Baina 'txikitxo' Uranga honen anaiak ere badira".

"Baina ezin da, Paka, dena tapatu!; eginak egin, honelakoak egiten dira, askotan malizia handirik gabe..."

Paka, isilik.

"Zure Uranga bizilagun ezkonberriari emaztea tisiko hil eta zure errukiak irristada batera eraman bazintuen ere, Uranga joan zen Ameriketara orain hogeitau urte; zure zenarrak, Gaxparrek, onartu zuen dena gogo onez; zure senar Gaxpar oso gizon ona zelako eta zu asko maite! Bestalde, aspaldi zure bi seme nagusiek Urangatarrei gertatutakoa badakite, eta gaur honetan jarraitzea ez da bekatu handia... Hara, zaharrak berri. Honek ez du zuk gaur ematen ari zaren garrantzia."

"Eta Gaxpar, txikia, dagoeneko soldadu!"

Gaxparri esan behar zaio egia, zu bere ama zarela, egiazkoa, eta kito!"

"Sinistuko al dit orain?"

"Berandutxo dator egia, baina neronek esaten badiot?"

"Berorrek esango balio?"

"Bai".

"Eta bi nagusiena?"

"Hori ere bai, egia aurretik, eta ulertuko dute".

"Ziur zaude?"

"Ziur, ez dago inor, egin duena baino!"

"Baina berorrek hauxe egingo luke?"

"Bai. Eta txikiari, Gaxparri, eta hau da zailena, honi ere esango diot xuxen eta siniskor, utzi nire kontu... Non da orain?"

"Ez dakit, hara! Ez da itzuli".

"Utzi nire kontu".

Erraz jakin du don Eugeniok, mutikoaren lagun bidez, izutua gordea non dagoen, eta bidali dio mezua. Arratsean igo zaio etxera. Sartu du etxebarrura maitekorki bizkarretik helduta, mutikoa apaiza bera baino handiagoa bada ere, eta bere ondoan eseri denean esan dio:

"Gaxpar" (txikia asko hasi da!) "soldadu eraman nahi zaituzte".

"Bai jauna".

"Zuk badakizu haurra gizon egiten denean eramaten dutela soldaduzkara".

"Bai".

"Eta Afrikara, aita bezala".

"Bai, baina aita Gaxpar nire aita ez dela esan didate soldaduzkan! Hemen jakin dut hau".

"Bai, entzun dut, eta honetaz hitz egin nahi dizut... Zuk ezagutzen nauzu, eta neuk zu ere bai, neuk bataiatu zintudan eta, badakizu hau, ezta?"

"Bai jauna, beti esan didate hau etxean".

"Eta hau egia xuxena duzu!"

"Baina Armadan Uranga naizela esan didate, eta ez Otaño, nire anaiak bezala?"

"Eta horregatik zaude ezkutatuta".

"Bai, jauna, zeren eta ni aitaren semea naiz beti, Otaño beti, zergatik hori, eta Madriletik!, ni hemen Uranga naizela?"

"Nik, bataiatu zindudan honek, egi-egia esango dizut. Sinistuko al didazu? Bada, esango dizut, testigu naizelako, Uranga bikote ezkonberria zuen bizilagun jarri zela zure bi anaiak koxkorrak zirenean. Emakumea gaixo zegoen hasieratik, eta urtebete barru, hil egin zen. Neronek eman nizkion azken sakramentuak. Biriketakoarekin, tisiko joan zen gaixoa. Zure ama Paka asko arduratu zen bikote hartaz, eta alargun geratu zen Uranga, igeltsero oso ona eta langilea, lur jota geratu zen. Paka kasu honetan, beste bizilagunekin legez portatu zen, esku-zabala bera, baina hemen gehiago, tristeago baitzen parada... Hemen sortzen zara zu, ama Pakak, Uranga igeltseroarekin egindako semetxoa... Ulertzen?", galdetzen du apaizak.

Ulertuko ez zuen bada, zuri-zuri zeukan aurpegia.

"Halaxe gertatu zen, askotan, maitasunez edo errukiz, gertatzen den gauza. Herrian, hemen, auzoan ere! Ba, halaxe jaio zinen zu ama Pakagandik. Uranga, Paka zure ama da! Bai, eta zure aita izan zena, konturatu zen gaizki egin zuela eta joan egin zen, ez dugu bere berririk izan, eta zure bataiatzerakoan, Gaxpar bertan zela, bere izena jarri genizun. Eta geroztik zu Gaxpar Otañoneko izan zara beti.

Ikusten nuen mutila, berez oso alai, izututa, eta galdera bat botatzeko eskubidea eskatu zidan:

"Berorrek bataiatu baninduen, jakingo du zer izenekin?"

"Noski: 'Gaspar', Otaño familiaren buruan, aita Otañoren besoetan, zeundela... ondoan bi anaiatxoak, oso txikiak, eta amatxo Paka, erturrena, nahiko ahuldua, zuk hartzen zenion titiagatik, segurasko!", egin dut barrez, unetxo hura pixka bat

bizkortzeko, oso baitzen geldia Gaxparren interesak ezartzen zion tentsio momentu hura. "Hauxe da dena. Zuk ez duzu aita Otaño besterik ezagutu, eta Paka zure ama egiazkoa da! Familia hartan zaude mundu guztiaren aurrean Otañoneko familian".

"Baina Armadan ez", irten zaio.

"Paper ofizialak halaxe izaten dira beti, hotzak eta gogorrak. Soldaduzka inporta al zaizu?".

"Berorren ustez", esaten dit, "zer egin behar dut soldaduzkarekin? Badaki berorrek gerran hil zuten aita Gasparrek ere Afrikan egin zuela".

"Hara, pozten naiz zuk hau aipatzea, zeren eta aitatxok sarri kontatzen zituen hango abenturak. Soldaduzkara neskak ere eramango balituzte..., kontu hori entzungo zenion bada".

Neuk pozik, baietz!

Honekin zuzendu genuen elkarrizketa hark sortu zuen mikaztasuna.

Hau esan, baina handik irten eta ez zen itzuli. Iragan zen aste bat, eta bi. Paka urduri, gaixo, oheratuta ere eduki zuen sendagileak, gero jaiki zen eta pasa ziren asteak eta hiltbateak eta hiru urte, San Jose egunean beteak, eta goiz batez, euritsua por zierto, telefono hotsa mezaondoko gosaritan ari zela, ez Paka, noski, don Eugenio baizik, komunikabideak Elizatik pasatzen baitira aurrena, eta apaizak eutsi dio aparatuari eskuinez eta zer entzungo eta ingelesa! "Halo, halo...".

"Nor da?".

Bestaldetik, urrundik, ingelesa berriz, eta...

"Don Eugenio...".

Hau ni nauk bada... yes!"...

"Zu al zara, apaiza?".

"Bai, bai, neroni... Nor da hor?".

"Ni, Gaxpar!".

"Pakan semia?".

"Noski... zer moduz?".

"Ongi, ongi... eta zeu?".

"Baita...".

"Zer esatea nahi duk amari?".

"Ongi naizela hemen, USA! Ezkondu egin behar dudala, don Eugenio".

"Ongi egingo duk, Gaxpar!, bejondeiala!".

"Bai, bai... Baina paperak behar ditut".

"Paperak?... Bidaliko dizkiat... Nora?".

"USA, USA!".

"Hori bazekiat, baina nora, zer herritara? Itxaron ezak, idatziko diat... Ea, bota".

"Chicago".

"Tokitara joan haiz... Eta kalea?".

"Jai-Alai Strit, 12".

"Besterik?".

"Besterik ez dut behar. Zuk sartu paperak poltsikoan eta etorri abioiz!".

"Nork joan behar du paperekin?".

"Zerrek... Ordainduko dizut bidaia, lasai... Emaztegaia oso polita eta jatorra dut. Izena, Mitxiko Kano..."

"Zer?"

"Japoniarra da".

"Nola demonio ulertu haiz beragaz?"

"Oso ondo!"

"Asko ikasi duk hiru urtean! Kristaua izango al duk!"

"Ez diot galdetu".

"Galdetu akiok bada" eta telefonoa zintzilikatu dut, zer egin ez dakidala.

Bihotza bilutsik

Mendi hegaleko eremutik ikusten zen itsasoa.

Begi bat nahikoa zen ozeanoa inguratzeko. Aita zen lekuko. Aitak berak eta Bixentak sortutako guztientzat zegoen lekua behatoki zoragarri honetan: ezkerreko alpean, mendebalean, oihana; gibelean, hiriaren azken inguraldeko etxeak; ekialdean, malkar itsu bat; eta aurrean, arima nahi adina laketzeko ur biziz eta oskarbiz gainezka betetako paisaia.

Amaierarik ez zuen ur-argiz betetako bista.

Sarri esaten zuen aitak, nioen neronek neure baitan, hala ere ikuspuntuaren balio nagusia bertan bizi zen familia batua bera zela.

Gerraurrea zen oraindik, horra!

Gudua lehertu zen berartan hasi zen ubeldua hiriko auzotxotik barrena zabaltzen! Uzten genien hala ere hiritarrei igande arratsaldeetan familia osoak itsasbazterretik ozeanoa ikustera hurbiltzen, itsasoari marruma izugarri eta ederra entzun ziezaioten debalde; arroketan lanpernak hartzera arrixkatzen ziren bizpahiru ezagun ere gure lursailaren bidexkatik, hitzik gabeko gure baimenaren babesean.

Hasiak ginen gerraurretik zortzi izan ginenok bakantzen. Lehena galdu genuena, seme nagusia! Gero bizia eman zion bere ama, Bixenta. Hurren, Auxtina, eta berehala Estanix eta Inaxio, harrobi aurrean izandako kotxe istripu triste hartatik barrena joanak, binaka orain. Berehala, eta oraindik bakean bizi ginela, neroni geratu nintzen ezkerreko alde gutzia perlesiak jota, hilda bezala.

Hemen ikasi nuen eskuinekotik bi begiekin bezain ongi ikustea ezina dela, baina geratu zitzaidan oraindik Xatur eta Joxemanuel seme gazteen arteko elkar aditze hunkigarria.

Gerrak jota orain!

Herriko kanposantuan tirokatu eta bizirik irten zen Xatur ganbaran daukagu ezkutatua. Gaitzerdi, beraz, bizi gara oraindik hirurok! Gurpilez mugitzen naizen honek entzuten dut eskuineko belarritik zerbait oraindik, gure etxe eder honetako leihotik itsasoa ikusten dut oraino edertasun zabal infinitoaz blai, eta begitxulotik gora gerra eta nahigabez betetzen ari zaidan lur eskas honen miseriatik. Xatur, txikiena, goian dago pipiak jotako arka zaharrean etzanda. Anaiari ari zitzaion arestian hizketan:

"Nola zeunden zu hiltzaileen artean?", ahopeko murmurioan Joxemanueli galdezka.

Ni eskaileretan eserita, holtz xumea tarteko:

"Nola? Hiriko zurrunbilan Lakatzeko Antoniok kamioira igotzera bultza ninduelako.

"Eta nola Antonio hor?".

"Ni bezalaxe, parte zaharreko nesketan. 'Goazemak', esan zidan. Nik, 'nora?'. Eta hark besotik hartu eta gauzez porturaino, isiltasunean tiro bat edo beste. Etxafuegoak bailiran!".

"Eta ni Kaxildoren tabernan harrapatu, zergatik?".

"Nik ez dakit".

"Jakin gabe!".

"Halaxe. Gero: 'Hauek kanposantura'. Nik uste nuen gazteak bildurtzeagatik zela, eta ke ba!, kamioia malda gora eta burdinazko ate handitik barrura".

"Badakit hau".

"Noski, baina oraindik broman zelakoan".

"Broman? Fusil eta guzti, eta broman!".

"Nik ez nuen fusilik hor".

"Baina gu seiak harresiaren kontra, laster lurtean eserita, zutik egoteko gauza ez ginelako!, eta zuek zigarroa eta hitza gora, eta pistolak ere bai, bi txapel gorri, beste bi militar jantzian... eta broma!".

"Artean hala zirudien".

"Eta zerorri izan zinen txapel gorria han bertan jantzi zenuenetakoa, e!".

"Lakatzeko Antoniok berak jarri zidala buruan!".

"Bai, dena kasualki eta txantxetan!", esaten du kutxatik Xaturrek, beretzat ari balitz bezala.

Ni, aita, han, eskaileran, aitorpen izugarri hau entzuten.

"Eta neure burua salbatzeagatik", dio Joxemanuelek; ahapeka, hala ere.

"Ez dut sinesten!".

"Nork lagundu zidan zu ezkerreko bazterrean jartzen, gu, Antonio eta biok zure aurrean, aurrez aurre, eta gu bion tiroak ez jotzera botatzen? Eta hurbildu eta esan nizuna entzun zenidan".

"Bai: 'geldik, hilda zaude'".

"Eta zer pasa zen gero?".

"Ba, hori, tiroak, banan-banan, bost, eta niretzat zetorrenaren zain lurtean geldirik eta begiak itxita nengoela norbaitek belarrondoan jo balit bezalako danbateko ikaragarri hura!".

"Eta zu bizirik".

"Bai! Nork bota zidan?".

"Neronek, lurrera".

Eta isildu ziren bi anaiak; aitak, neronek, entzun nuen isilunearen izudura.

Minutu luze bat egon nintzen zain, eta jaitsi nituen eskailerak banan-banan arrasta isilean, eta pozik, ez bi semeak bizirik zeudelako bakarrik, batez ere batak bestea, zaharrenak gaztetxoena, salbatu zuelako!

Gau honetan lo ere egin nuen.

Udako eguzki ederra goien zegoen jaiki nintzenerako, eta nire kafesnea prestatzen ari naizela sentitzen dut norbait mahaian esertzen; Joxemanuel zen; neuk esne beroa kazoan dudala galdetu nion:

"Inor hil al duzu, seme?".

"Ez".

Eta bota nion katilura esnea, gero kafea, eskaini nion sei librakotik ebaki nion ogia, eta nire eserleku mugikorretik alma eta musu eman nion buruko ilegorrian.

Gogoan dut nola bi anaiak banan-banan etxetik irten ziren:

"Aita", esan zidan aurrena irten zen Joxemanuelek, "hemen uzten dizut Xatur, baina ez arduratu, laster etorriko dira konfiantza osokoak bere bila". Besoa estutu zidan indar

handiz, eta joan zen presaka. Hiru egun urduri pasa eta gau batez neronek ezagutzen nuen mutila, Erdozianeko Nikolax, sartu zen sukalderraino eta esan zidan gordea neukan semearen bila zetorrela, eta, hala, bi lagunak besarkatu eta irten ziren atzealdetik hirirantz; hor desagertu zitzaidan pinudiko bihurtunean ilargitan irten zen semea. Eta sukaldean oraindik dardarka nengoela etorri zitzaizkidan bizi-bizi irten aurretik esan zitzaidan hitzak: "Aita, sentitzen dut zu hemen, eta egoera honetan, bakarrik uztea. Hitz egin dut otorduak egitera etortzen den Baxilirekin, eta kontu egingo dizu gau eta egun, hemen geratuko zaizu lotan-eta..., zuk ongi baderizkiozu" Nik baietz, eta jarraitu zuen amaitzeko: "Nik bidaliko dizut laguntza lanean jarri bezain laster, Joxemanuelek frentetik ez du zuri sosik bidaltzeko modurik izango eta". Irten aurretik musu eman zidan Xaturrek kopetan.

Honelaxe gertatu ziren gauzak orduan.

Ni urduri geratu nintzen. Falangista zen norbait etorri zitekeen ni zirikatzen. Aspaldi muturtuta geunden Inaxio "fraidea" eta ni, eta hala ere sartzen hasia zen orain eremuan nik behin debekatu nion lanpernetarako pasagunetik, eta etxera lotsagabe begira-begira, gainera. Horretxan beldur banintzen ere, ez zen alde horretatik ezer etorri. Esperoan nengoen honen orde, seilurik gabe eskutitz bat aurkitu nuen sarrerako postontzian. Xaturrena zen, Frantziatik norbaiten bidez bidalia. Bestaldera ongi heldu zela. Irten zenean adierazi bainion nire mesfidantza bidai lagunaz! Lasaitu nintzen osorik orain, zeren eta Joxemanuelek Guadalajarako frentetik bidali zidan berea, postaz hau, Bilbo eta gainontzekoak erori bezperan. Hau gertatzen zenean, teniente zenez, permiso bereziarekin ni ikustera etorriko zela aginduz.

Bilbo egun batzuk barru erori zen.

Etxetik entzun nituen gertakaria ospatzeko hirian kalez kale ibili ziren bandak, danborrak eta kornetak.

Baina hau gertatu eta laster etorriko zela idatzi bazidan ere, ez zen semea agertu. Ezta bere eskutizik ere. Nire karrotxoari bultzaka eramanez ninduen Baxilik udaletxera, eta Sekretarioari erakutsi nion Joxemanuelen eskutitza, laster etorriko zela aginduz, eta hala ere bi hilabetez berririk ez nuela esatera. Honek egin zituen bilaketak, eta arratsalde batez heldu zitzaidan udaltzaina mezu idatzi batekin eta nire begi bakarretik laster ikusi nion atsekabea: ez zitzaidan semea hil, baina frenteko "avanzada" batean tenientea zen Jose Manuel Iriarte Lertxundi beste sei gizonekin desagertu egin zen! Eta, hara nola diren gauzak: berri triste hau jasotako asteburu hartan seilu berezi batekin itsasoaz bestaldetik, Argentinatik, jaso nuen Xaturren eskutitza, erizain bezala hartu zutela lanean! Bietatik bat behintzat salbu zen, eta bestearen zain gelditu nintzen.

Hau, itxaropena, ezin bainuen galdu.

Hala hasi nintzen, burua arintzen ari zitzaidan arabera, ozeanoz bestalde aurrez aurre neukan Argentinan zegoen Xaturrekin hizketan, eta Joxemanuelen alde, desagertuen santuari (egon behar du Goian, Santa Luzia bistarentzat den bezala honetarako ere ardura duen norbait) semea itzul zedila erreguka.

Baxilik esan zidan hau bizpahiru aldiz, bakarrik hizketan hasia nintzela.

Luze joan zitzaidan negua eta hurrengo urte osoa ere.

Azkenik, Jainkoari esker, ni artean begi honetatik begiratzeko gai, eta hara non amaitzen den gerra eta etortzen zaidan bi urtez Valentzian preso eduki zidaten

Joxemanuel! Teniente jantzita, baina tira! Eta idazten diot, labur eta baldar, eskuineko esku motelaz, Xaturri! Hirurok biltzeko esperantzak bizirik iraunarazi zidanez gero, ederra izango litzatekeela ni hil baino lehen hirurok elkarganatzea.

Xaturrena, herrian aspaldi ahaztua baitzegoen!

Luze egin zitzaidan, baina nire harridura handiz hemen dator ia urtebete geroago Xatur nik laurogeita hamar urte betetzen ditudan San Silbestre egunean bertan! Aspaldi eroria dabilen nire begi bakarra piztu zait itsasoari begira dagoen eremu ederraren erdian Xaturrekin familia osoa elkarganatu garenean.

Erregetako bazkalondoan neronek, Xaturrek, bota nuen mahai gainean, aita sukaldetik zerbaitetara irten zen unetxo hartan:

"Etxea zahartua dago itzaizurrekin aitzinaldea zartatua, itoginak etxebarruan nonahi, zergatik ez diogu berriztatu bat ematen?, esan nuen, "ditudan sos batzuk jarriko nituzke honetarako".

"Zahar hau bota, eta berria den zerbait egitea hobe, esan zuen Joxemanuelek.

"Eta aita?".

"Aita joana dago, ikusten duzu, eta ezkontzeko asmotan nabilenez, eta zerorrek ere gauza bera adierazi didazu Amerikan utzi duzun neskalaguna aipatuz".

"Baina legez eremu honetan bi etxe eraikitzea debekatua egon daiteke", esan nion.

"Hori, legea, gu gara, gerra irabazi dugunok".

Niri, Xaturri, anaiari hau entzun diodanean garrantza den txistura pasa zait eztarritik, eta nik nola begiratu diodan gogoan ez badut ere, Joxemanuelek bota didan begiradan bai ikusi diot gaiztoz okertutako irribarrea!, eta entzun diot berriz hizketan:

"Ez duzue oraindik ikasi?", gogortasunik gabeko tonuan esana, beldurgarria, jela ahotsean, "...eta esango dizut, gainera, hori, eremu honen lurzuketaren plano eta eskriturak ofizialki eginak daudela, eta dagoeneko firmatuak".

"Ez duzu, beraz, nire sinadurik ere behar!".

"Zu, Xatur, hilda zaude".

"Ni hilda?"

"Bai, kanposantuan, ez al zara gogoratzen?".

Mina ez zidan esandakoak eman, irribarretsu ahoskatzeko moduak burura, begietara!, ekarri zidan kurprits orlegiak baizik, gardenusain eta guzti.

Erantzun gabe mahaitik altxatu eta eskaileratxoak presaka igo eta armairu handian sartu nintzen.

Hila zerraldoan bezala.

Arkan neronek atera ditudan hots hutsak geratu zaizkit belarrian, joan gabe!

Burura etorri zait, hutsune ikaragarri honetan, oraindik bizirik nagoenez, eta nahiko inozente, anaia igoko zaidala zuribidezko zerbait esatera. Haurrak ginela jolasten genuen plantak egin eta gero, "inoxente!", baina isiltasun ikaragarriak, bihotza geldituta sentitzerainokoak, eraman nau irudizko bidaian hilerrira, eta harresiaren kontra tirokatu gintuztenean ez nintzen okerrago sentitu. Leiho gabeko ganbaran ez nuen teila tartetik sartzan den argia besterik ikusten, orduak aurrera eta egun hau amaitzen ari dela, ilunpetan jadanik. Ikusi dut kandela baten argi higikorra ate txikitik sartu eta hurbiltzen...

"Xatur, seme...".

Ez dakit nolatan igo dituen eskailerak, baina aitaren arnasestuaren dardar berarekin heldu zait garrasia: "Seme!".

"Bai, aita".

"Jaitsi zaitetz, mesedez. Joxemanuel joan da. Zerbait jan behar duzu... Entzun dituz guztiak... Ez du esandakorik egingo". Eta aurrean dut aita, eta kandelaren argia lurrean uzten didan bitartean negar-zotina irten zaio.

Kandela urtuaren malkoei hilaren usaina darie.

Lagundu diot beherantz, oheratu dut eta igo naiz berriz nire babeslekura, parapetora.

Amatxoren sabelera, hobe esan!

Oso urrun eta minetan gozo.

Gaua luze egin zait alferrikako zentinelan lan luze eta doloretsu honetan. Gorrotoari diot beldur orain!

Goiztiri, teilarteko argi berriak esnatu ditu kanpotik patxadan baina etengabe datozen aitzurkadak, "tzak, tzak", norbait ehortzeko prestaketan ari balira bezala. Laster errepikan binaka, hirunaka, "tzak, tzak-tzak, tzak". Eta hitzak haginkada hauen gainetik orain: "Ezkerreraxio... hortik!... Marka zak taketekin... 'tok, tok, tok'... Hoa orain xuxen"...

Ez da anaiaren ahotsa.

Aita igo beharrean, Baxili da mezularia gaur, aita buruko minez esnatu dela eta. Jaitsi egin naiz, egia hori nolakoa den ikustera, aita egiatan gaixotu den beldur.

"Jaitsi zara...", esan dit ohetik.

"Bai, zu ikustearren. Ongi zaude?".

"Ez. Ikusi duzu irekitzen ari diren lubakia?".

"Ez dut begiratu, Joxemanuelen etxearen zimenduak izango dira!".

"Begira zerorrek".

Leihotik ikusi dudana... etxearen aurrez aurre, hamabost bat metrotara, korda tinko baten arrimoan ari da dozena bat gizon zanga xuxen eta luzea aitzurten... Batzuk ezagunak... "Galardiko Joxe ere hor da", esan diot aitari.

"Eta, zertarako honelako zulo marra", galdetzen dit aitak.

Ez diot erantzun, baina eremuaren erditik doan zauria, muga berria da; bat zena, erdibitzen ari dira.

"Zer egingo duten? Bi zati", esan diot azkenean.

"Eta zertarako?" aitak berriz, ez baitu hau ulertzeko behar den malizia maltzurrik. "Itsasorik gabe, zerurik gabe, utzi nahi gaituzte!". Aitarekin ordu pare bat egon naiz; lasaituta utzi dudanean, Baxilik atera didan kafesnea irentsi eta bizarra ebaki bezain laster irten eta joan natzaio, hilda dagoen anaia, gerra irabazi duen eta morroi azkarra irten denari. Alkatearengana. Ordubete zain eduki nau, garbantzua beratzen edukitzen den bezala. Hartu nau udaltzain batek eskutik, ukitu gabe baina eskutik hartuta baninderama bezala, Euxebio Zubiaur, formal oso!, ezagutuko ez banindu legez, krisketak "klask" eginda bulego eder zabaleko urrezko purpurinaz pintatua dagoen aulki batean eserita dagoenagana.

"Zer da presa?", galdetu dit idazteko plantan makurtuta Joxemanuelek.

Ni aurrean zutik, isilik, bere goiburuan daukan lauki handiko militar medailadun harro biribilari begira...

"Zer, ezagutzen duk?"

"Bai, zuen jainko txikia".

"Horixe, egin akiok burla oraindik!"

"Jakin nahi diat", esan diot haserre, bestela ez baitugu anai artean inoiz hika hitz egin, "noren izenean hartutako eskubidearekin egin duan familiako eremuaren partizioa". Hunkipenak eragindako nire ahotsaren dardara zabaldu da saloi apainean.

"Noren izenean? Ni nauk familia hartatik bizirik geratu dena, eta, legez, eremu horretaz erabaki hau har dezakeen bakarra".

"Eta atzean preso utzi duan eremu erdia, etxe itsu batekin, zertarako duk!"

"Hori?, negu partean ardiak botatzeko. Eta hire azken nahia hori bada, esatea besterik ez daukak, erdian panteoi bat egingo diat, hire heriotzaren datuak errejistroan zeudek". Irten zaio gorrotoa. "Nik Valentziako espetxean txerriak bezala eduki nauzuen honek, dizkiat orain, irabazle bezala, honetarako aginte guztiak eta".

"Eta aita?"

"Aita beste zerbait duk, eta ni neu arduratuko nauk ama eta anai-arrebekin batera merezi duen deskantsua izan dezan. Legezkoa duk hau ere".

Eta mahai gainean zuen kanpaitxoan astindu du: "Tilin, tilin". Norbait heldu zait atzetik, eta norbaitek bultzata sentitu naiz ibiltzen eta kanpoan aurkitu naiz.

Hiriko plazan.

Hemen ahotsa ezagutu dut eta begiratu: "Joxe, hi al haiz hemen", eta ez dit Joxe Olalde begiratu, juxtu besoa estutu dit eta itzuli erdi mekaniko bat egin eta han doa Udaletxeko sarrera nagusitik barrena...

Bada honetaz hilabete.

Bitartean aita ari zait mezuak kutxara ekartzen. Komunera irteten naiz; mudaz aldatzen naiz; dena Baxiliri esker. Ni aita bezain hilda nago. Ez dut ura besterik hartzen, ezin dut ezer irentsi...

Aita, berriz.

Gurdi eta kamioietan harria ekartzen ari direla oihanaren bestaldean dagoen harrobitik (entzuten ditut neronek kamioietako harri jasaldiak). Haizea nondik jotzen ari den moduan igotzen da eta jaisten da zarata. Metro bat igo dutela trintxera, hor geratuko ote diren, oraindik sukaldetik itsasoa ikusten dela... Baina astebete geroago ez du aitak behetik harresia besterik ikusten, eta ganbarako teila zuloetatik itsasoa ikustera etorri zait... Garabi eta abarrekin murru handia, frontoi izugarria gorantz hazi eta hazi doa.

Gaur goizean, azken ikustaldian aitak egin duen garrasiak atera nau goiz erdian arkatik: "Xatur!"

"Estali digute itsasoa eta zerua ere!", pentsatu dut.

Halaxe da. Aita jaitsi dugu Baxilik eta biok, eta oheratu bezain laster sendagileari deitzera joan naiz hiriko lehen tabernatik, eta biok egon gara ordu pare bat, Baxili atzetik abemariaka, begia berez itxi zaion arte.

Isilekoa

Gauez ibaiaz harantzako urbazterrean eta lubakitik begira jarrita sumatzen genuen begi bati, ai, Jainko ahaltzua!, "Elektrikoa" deitzen genion; argi baten modura pizten baitzen bat-batean eta Salustiok konfesalekuaren gainaldean zintzilikatu zuen kanpaitxoaa asmatzen zuen tiroak justu! Gure lubakian sartua zegoen zurezko kaiolantzeko handia gainditzen zuen gurutzeak, eta barruan egiten zen oso ongi goardia neguan, ez zitzaizkion bati oinak hozten, eta hor zegoen bekatuak deskantsuan entzuteko apezak zuen eserlekua ere.

Tramankulu hau kamioiz heldu zen beste batzuekin batera katedraletik bota zituztenean, eta lekuz leku tarteka joan ziren uzten errepideko bazterretan. Hau 52. kilometroan jaurtiki zuten, Komandantzia inguruan. Hemen egiten zen goardia. Erretiratu ginenean, norbaitek igo egin zuen berriz kamioira; beste batek kantina ondoan bota zuen, balaz zaurituta zekarten bat bertan etzateko traba egiten zuelako; ni neu oinez formatuta martxan pasa nintzenean, ikusi nuen iraulia eta dagoeneko erauzia; inork ez zion txiste bat egin, berrogeita hamar kilometro baino gehiagotik gentozelako; nik ikusi nuen eta isildu nintzen. Kasualitate bat izan zen errepidean gindoazela, mendixka baten bizkarrari itzulitxo bat egiten ari ginela "alto!" hura botatzea, eta gu ibairaino jaitsaraztea, ezkerretara; ibaia hazia zetorren, ur berriz puztua, zuhaitzak ere ikusten ziren etzanda igerian, erroak adar, eta gizon bat hilda, zibila, eta esan zuten ez zetorrela itoa, itoak hondoratzen direlako, baizik eta beste zerbaitek hila. Hilotza ibai bazterreko abarrekin trabatu zen, gu lubakia aitzurtzen jarri ginenetik gertu. Denok ikusi genuen urgainean noraezean zetorrela nola geratu zen; adineko pertsona zen, hortzgabea, ileurdina. Pena ematen zuen. Baina presa handiko lubakia aitzurtzen ari ginen. Egun hartan ilundu zuenean ez genuen sukaldea muntatzeko betarik izan, txusko bat eman ziguten, ogi lehor gogorra, eta bi tauleta txiki txokolate. Beroskorik ez. Bakoitza kukubilkatzen zen ahal zuen tokian, eta ni, malda behera zetorren ibaiaren ur marroi eta haziaren hots burrundatsuei lotuta; ur arranparen zurrustada larriak ziren, hilotza beste mundura eraman nahi balute bezalako zurrupada sakonak iruditzen niri, dagoeneko handik begira geneukan Rosendoren arima bailitzan..., zeren eta nire anaia zaharrena baitzen.

Egunguentian oraindik han zegoen, arantza-abarrarte bizi bati besarkatua, seguraski hilak berak zekarren sasi ihar gorri hori dela medio lotua.

Orain badakit nondikdanik.

Nik utzi nuen erortzen, esan gabe, sekzioko kide baten aurrean, ea zergatik ez genuen ehortzen, eta Salustio ibai bazterreraino beheratu eta sasi haren atzaparretatik libratzeko hilari berebiziko ostikada emanaz erantzun zidan, eta esan zuen: "Hor doa sakotea!".

Gaiztakeriarik gabe.

Joaterakoan putz kiratsu bat bota zuen.

Eta ikusi nuen nire anaia jira-biraka alde egiten, batzuetan hilen tximeletak kriseiluetako oliotan egiten duten antzera, eta ikusi ahal izan nuen nolatan irten zen sorgin-haizetik abiada prestu batez itsasorantz.

Jaitsi ziren urak, geratu zen frentea, eta geroztik ez genuen gizendu besterik egin. Gauetako goardiak aukeratzen nituen, eta konfesalekuan egiten nuen lo. Batzuetan "Elektrikoak" kanpaitxoan asmatzen zuen tiroak iratzarten ninduen; mailatua zegoen txilina, Salustiok alantzen lotu zion gurutzeari, eta ezpel gogorrean norbaitek pultsu onez eta gubiaz egindako gurutzea bera ukigabe zegoen. Batek pentsa dezake kasualitate honetaz nahi duena, Salustiok araketa egiten zion bakoitzean oihu egiten zuen: "Redios!". Neuk aitagure bat, otoizten nion.

Iragan zen udaberri hura eta etorri zen udako lehen eguzkia. Konfesalekua labe bihurtu zen, baina nire etxea zen, nire kanpainadenda, frente geldi eta isil batean. Konpromezuzko tiro bat izan ezik, gerra hilen ohikeria hutsa, elkarri erasotzeko indarrak gabe dagoeneko, baina hala ere besoa edo ukabila jaso eta "redios" bat botatzeko beti prest, "ibaia gurutzatu eta parranda izorratuko dizuegula!", "jaunartu nahi duenak ager dezala musturra!", "ostiaka, nahi duzuenean!".

Eta honela nengoen gosez eta gerraz osatutako nire ametsetako biagotan errantxoan ondoan uztaileko isilune pisuan hitz goren hura airean lehertu zenean:

"Ea!, Serbando Ruiz, herritarrek hitz egin nahi dizutela!".

Modorreria hartatik nire izenak esnatu ninduen, eta batez ere ibaiaz bestaldetik eta bozgorailuz jaurtikia zetorrelako.

Alde honetaratik norbaiti irten zitzaion, bestetan bezala, erantzun prestua:

"Joan hadi popatik hartzera".

"Ez, bozgorailutik ezin duk; Serbando Ruiz jar dadila aparatuan, hor duzuen inbutuan. Egiatan dela: bere arreba bat dagoela hemen zain, mezu bat pasa nahi diola, motel".

Egiatan zela zirudien, eta ez adarra jotzen.

Gu heldu ginenean ibai hazi eta lodi hartaz, gero, udaldia tarteko, hoge bat metroko ur geldi eta epela besterik ez zen geratu, bertoko tekusaina zerion ur geldian gaez garbitzen zituzten oinak eta gainontzekoak, bilutsik, hemengo milizianoek eta hango erreketek eta falangistek, eta batzuetan trukatzeko zituzten beraien artean gauzak. Ez zen bozgorailurik ere behar alde batetik bestera hitz egiteko, neronek entzuten nituen, eta konfesalekuan entzuten jarri gabe, frenteko nire aurrekoen jardunak, baina bozgorailutik irteten zen hitz hanpatu hura tentetzen zenean, komunikazioa komunikatu ofizial bihurtzen zen, gerrako partea:

"Jar dadila Serbando Ruiz, bere arreba hitz egin nahi diola".

Inork ez ninduen izen horrekin ezagutzen, ni isilik geratu nintzen.

"Ea", esetsi zion mintzalariak, "jar dadila inbutuan Serbando Ruiz, 'apaiz gorria'...". Nik eserlekuan jauzi bat egin nuen eta ez nintzen jada konfesalekuan kabitzen!; baina ez nintzen higitu, eta ez nuen ezer esan. "Serbando", jarraitu zuen orain emakumearen ahotsa zuen norbaitek bestaldetik, "ni naiz, Klarisa, esateko ama hil dela... Badakit hor zaudela, ondo tratatzen zaituztela, Jainkoak bedeinka zaitzala eta hor errespetatzen zaituztenak ere bai... Ezin baduzu hitz egin, ez zaio axola, baina ematen dizut berria, erreza diezaiozun, gaixoa, hiltzerakoan bedeinkatu zintuen-eta, zain egongo da... Agur".

Handik murmurio bat entzun zen.

Eta hemendik, ibaiaz honantza ere, zorigaitz honek zurumurru bat sortu zuen, denek baitzuten ama.

Eta besterik ez, dolua errespetatu zen.

Ordu bete joan zen isilik. Gorputza dardarretan neukan, hotzak.

Eguna amaitu zenean, urbazterreko putzuak ispiluak bezala argitan jartzen diren orduan, erreakzionatu nuen askotan goizaldean pixagurarekin esnatzen nintzenean bezala, eta eutsi nion pixka bat higitu gabe, ezin nuelako. Hartan, egurrezko saretatik kolpetxo bat inguratu zitzaidan, lubaki berera ematen zuen konfesalekuaren beste aldetik, eta Salustio kankailua zen, kabu furriela, sekretuzko ahotsarekin esaten:

"Presta zaitez, fusilatuko zaituzte".

Eta geldik eta isilik geratu zen; nahastezinezko bere sudurraren ziluetan ikusten nion zeruko islaren kontra, eta seriotasun handiko kokots handi eta bildua. Ez zitzaidan inoiz, bitara, hain higitu eta pentsakor, inoiz agertu, eta neuk ez nekien zer esan.

"Aitortu zure bekatuak, anaia Serbando, oraindik garaiz zaude".

Nik ez nion bromari jarraitu, eta gero jakin nahi izan nuen nolatan desestali ninduten, zeren eta ni bataloian Luis Atienza nintzen zerrendan, eta Luis kamaradentzat.

"Mojaren ahotsaz jardutera irten ez den bakarra izan zara... Arrantxora ez zara agertu, eta txismea Komandanteari pasa diote azkar".

Gurutze egin, salbea esan, eta konfesalekutik irten nintzen. Lubakiko lagunak bidean zehar zain neuzkan erditzalean, eta ni isilik Salustioren atzetik, honek besoz lepoa hartu zidanean. Goragoko jakinguraren murmurio artean igo ninduen errepideraino, eta Komandantzia jarri zuten kaminero kasetan sartu aurretik, farol argia mozteko manta gurutzatuekin egina zegoen gortinaren aurrean, geldiarazi ninduen lepotik bere besoz estutuaz, eta esan zidan:

"Nik banekien zutaz, zure izena ezaguna zen, baina ez zintudan apaizarekin lotzen; ni ere atzipetu nauzu, kabroi horrek, Esan didate fusilatu egingo zaituztela, hemen isileko, hau da komandanteak erabili duen hitza, "isileko", izateagatik... Baina Jainkoagan itxaron behar da beti". Hau zen lehen aldikoz kabuak Jainkoa aipatzen zidala.

Eta bultza ninduen bateriarekin piztua zeukaten argia beilatzeko jarriak zeuden bi burusien artetik, eta nik salutatu nuen argitan botekiko zaratotsaz firmeki esanaz: "Luis Atienza soldadua aurkezten zaizu, lehen Servando Ruiz zena, nire komandantea".

"Egia al da apeza zarela?".

"Bai, nire komandantea", eta ez nuen gehiago esan; berak begirada latza bota zidan, baina gorrotorik gabe. Bistaz ezaguna nuen, noski, burusoila, argala eta bibotearekin, baina ez nuen inoiz beragaz hitz egin.

"Eta zergatik ez zenuen esan?".

"Beldurrez, nire komandantea"...

"Orain okerrago izango da", mozten nau, izen faltsuarekin alistatu zinen, eta isileko bezala izango zara epaitua gure armadan. Badakizu zer datorkizun".

"Bai, nire komandantea, baina esan nahi dizut beti izan naizela Errepublikarekiko leial".

"Baliteke, baina ez zait inondik ageri; aldiz, arautegia eskuetan, zure faltsukeria, nire indarren barruan isileko jarduera, abade izanda gaiztoago... Ez diozu heriotzari beldur izango!"

"Bai, nire komandantea, badiot", eta bazihoan nirea etetera, aurrera egiten asmatu nuenean: "...beldur diot honela hiltzeari, bilaukeria bat, saldukeria bat, egin banu bezala, eta beldurrez isiltzea bakarrik izan da, zeuk orain izan duzun erreazio honi nion beldur... Egiatan egin dudak bakarra lehen egunetik milizian sartu eta lege errepublikarra defendatzea izan da".

"Gizona, sermoia geratu zaizu oraindik!"

"Nire komandantea, egia da".

"Ba al da zure herriko norbait batailo honetan?"

Ni zutik nengoen, bera kanpainako bulegoan enbalaje kaxa baten gainean eserita niri begira-begira, kuriositate gaixoti batez nire miliziano jantzia begiez arakatzen, sotanaren bila, baina gorroto gabe, iruditu zitzaidan.

"Ez, nik dakidala".

"Egia al da Errepublikaren hasieran dagoeneko 'apaiz gorria' deitzen zizutela?"

"Bai, nire komandantea".

"Eta zergatik?"

"Ba, nire sermoietan eliztarrei askatasunaz, nekazariei lurraz zeukaten eskubideaz, neuk justuak direla iruditzen zitzaizkidan gauzez, hitz egiten nielako".

"Eta zer zioen zure gotzainak?"

"Gozainak behin deitu ninduen eta egin zizkidan galderak, zeuk orain bezalatsu; bihotzarekin erantzun nion, eta berak ulertu zuen; esan zidan zuhur jokatzeko, eta ez eskandalu eragile. Honek izutzen zuen".

"Eta armadaren altxamendua gertatu zenean, zer egin zenuen?"

"Falangista zen eliztar batek ohartarazi ninduen gau hartan nire bila zetozela, eta bazekien zertara. Goiz hartan bi fusilatu zituzten herrian. Ezkutatu egin nintzen, arratsean mendira jo nuen, eta hiriburura heldu nintzen, lagunaren etxean irratiz ikasi bainuen hartu ninduen bertoko koartelean azkenean nagusitu zirenak errepublikarrak izan zirela. Milizietara aurkeztu nintzen eta orduan hil berria zen lagun baten izena eman nuen, Serbandorena, Serbando Ruiz, gaitzizenez 'Pitxitxi', eta bere dokumentazioarekin; ez nuen inoiz nire nortasunaz inorekin hitz egin, profanazioak eta isekak ebitatzearen gotzainak egin zidan erreguari leial izan nintzen, eta bidenabar nire burua babestu nuen, egia da, gaur zurea izan den erreazioaren antzekoari beldur itzela bainion".

"Beno, zeu hemengo baino hango gehiago zaudela dirudi!"

"Ez da hala, nire komandantea".

"Joan zaitez zure postura, eta aurkez zaitez nigana berriz bihar goizeko hamarretan". Eta dei bat egin zuen boz goraz: "Salustio!". Sartu zen nire laguna, eta esan zion komandanteak gauza asko eta larri adierazten zuen tonu pisu eta lehor batean: "Zeu egiten zaitut gizon honen erantzule bakar bihar goizeko hamarrek arte!"

"Bai, nire komandante", esan zion nire lubakiko kide eta kabu furriel zenak, eta honek erantzun zion gogorki taloiaz agurtuz, eta ni bultza ninduen zakarki, arestian erakutsi zidan maitasunetik urrun! Iraulketa handi bat egin zidan arimak. Neuk ez nuen

izan komandantea militarri agurtzeko denborarik ere, eta esan nion Salustiori, malda behera gindoazela, barka nintzala. Esan zidan ez horretaz arduratzeko orain, eta bere esku handi eta baldar hura jarri zidan nire besaburuan, hori "peccata minuta" zela; eta, konfidantza osoan esaten zidala, komandanteak bere tonu eta klabe hartan esan nahi izan ziona zera zela, zain nintzala; jagon, hobe esan, zeren gauetik geratzen zen guztia ematen zidala nik buruan izan nezakeen iheserako, ibaia gurutzatzeko, epe moduko tentazioa..., nirekin akabatzeko! Eta geratu ninduen besaburuan eskua pisu osoa jarriz ibaira eta konfesalekura jaisteko azken txanpan, eta erantsi zion: "Neuk bijilatuko zaitut, nire soldadutzako eginbeharra delako, baina badakit joan egingo zarela".

Berrekin genion bideari isilik, konfesatzeko txabolara heldu ginen arte.

"Neuk esaten dizut lo lasai egiteko (ez duzula egingo baldin badakit ere) zeren eta litekeena da zu bihar Komandantearen konfiantzako gizona izatera heltzea."

Jesusek gurutzean esandako hitzak lotsagabeki errepikatuak ziruditen!

Eta nire lekuan utzi ninduen.

"Gabon" batzuk gabe.

Nik leihatilatik jarraitu nuen ibiaiek islatzen zuen argitako errainuen arteko ziluetan metro batzuetan, baina gero ere jarraitu ahal izan nuen metrailadoretako eskoadran mutilei botatzen zizkien hitz lasaiak entzuten, ahotsean ezkutuko maliziarik ez, Salustiok ez baitzuen isilekorik gordetzen. Baina nahasten ninduten batzuetan bi zentzuko bromak, gaur Itun Berriko gauza serioak, esate baterako. Ikusi nuen nola ibaiaren goialdeko bazterretik lau buruko taldetxo bat inguratzen ari zitzaidan, ustekabean konfesalekuarekin topa izan balute legez... Odola izoztu zitzaidan; espero ez nuen aldetik, hara!; eta irten zitzaidan etxolatik pauso bat kanpora egiteko keinua, nahi gabe, beldurak eraginda, eta hala ere susmorik gabeko eguraldiaz aritu ginen.

Laster ibaiaren bi aldeetan "isiltasun" korneta hotsak entzun ziren, aurrez aurre eta hil arteko borrokan ari zirenen artean zegoen bi minutuko aldearekin, eta bakoitza jarri zen goardiara edo lotara, eta neu bildu nintzen nire kapotean konfesalekuak oraindik gordetzen zuen zurezko zolu lehorraren, ehiarraren, gain ederrean, gaur sentitutako zirrarak leherrarazita, eta azkenean loak berekin har nintzan.

Betiko, agian!

Eta loak hartu ninduen!

Pauso isil batzuen larritsunak iratzarri ninduen.

Oinkada normalak, zentinelarenak, ez zuen nire entzumenaren alertatuko, baina gauetz ezkututzen den urratsak bai. Nire ofizioa zen; goardia zerbitzuan ez banangoen ere, gorde behar nintzen, nire barruko alerta zen, lotan ere bizirik. Oinkadak ez zuen ura txaplatu, egun horretan bare eta epel bazegoen ere, eta pausokada aldatu zen, aldiz, malda gora. Igo zen. Ilunpean entzumenarekin ikusten ari nintzaion Salustiori Komandantziara iristeko zeraman presa larria. Pentsatu nituen bi gauza batera, posible ez dela badirudi ere. Ez nuen erlojurik, baina gau itxia zen artean, eta hain adoretzu sentitu nuen izpiritua, loak bi edo hiru orduz hartu ninduen; laurak izan zitezkeen, erreleboaren ordua, baina ez bart kabuak kapitainaren kamastorra zeraman pausoa gauetan gertatu zena eta gero. Hau izan zen pentsatu nuen gauza bat, eta bitartean hartu nuen erabakia jauzi batez alde egitea, horretara bortxatzen baninduten, eta adorea zirrikitu bat irekitzen bazidan. Itxaron egin nuen mañoaren zurrunga dardarakorra

lagun bakar nuela arerioak dagoeneko sobera ezagutzen zuen konpainia hartan. Eta iragan zen, joan zen ordubete luze berririk gabe, aurrentitzen hasi nintzen arte, ikusten baino hobea, artzainaren mendixkan egunsenti baten argiluna, zeren eta ikusten genuen bat zakurrik gabe, eta ardi gabe, behin batean batek parabolak bezala ihes egin zion arte eta mutilak ahaztu zituen gainontzekok eta korri egin zuen malda behera ia ibairaino arkumearen bila gerrari beldurra galdu arte, eta fronte guztiak ikusi zuen artzain gaztea bildotsa beeka lepo inguruan hartuta, irudi biblikoa. Hortik zihoan gaua, eta orduerdi barru –okerrena pentsatzeko denboratxoa hartu nuen–, presaz sentitu nituen urratsak, orain astunak, eta ez zetozen bakarrik, baizik eta kamarada Salustiok agindutako tropel txiki baten konpainian. Aurrean bertan neukan dagoeneko!, eta ez saretxoan, badaezpada ere zain nengoen leihoan, baizik eta nire aurrean, aterik gabeko konfesalekuaren parean, mendixkaren gaineko zerua estaltzen eta kankailu hark ahal zuen ahots txikienarekin esaten:

"Luis, heldu zaik ordua. Ez garrasirik, ez ezer esan, hator".

Eta nik obeditu egin nion, besterik ezin nuelako, ez zitzaidan pentsatu nuenetik ezer irteten, itsu jaio berriaren pausoekin hari jarraitu baizik, han gaineko bildotsak bezala, neuk dagoeneko ikusi ezin nuen mendixka, zeren eta ezpelarekin egindako gurutzea bere haragi bezalako zerbait bailitzan zaintzen zuen gizonaren trokoaren atzetik bainindoa, bezperan kapitainak, postuko komandanteak, esandakoarena entzuteko paradan sosegu apur bat eman zidana, eta oraintxe hemen zegoena, berarekin atzetik zetozen eta fusil laburrez armatutako lau gizon gehiago. Ni erdian. Eta Salustiok ez zidala beste ezer esan, ezta kaixo ere, eta heriotza seinalea zen. Eta honela gindoazen eskuinean mendixkako oskorria genuela, ibaiaren bazterra galdu gabe eta gorantz, ni, neu, zangoak neureak ez bailiran, kapitainak eta kabuak egiten zuten bikoteari jarraitu ezinik oinak trebuka, eta armatuak zetozen lau gizonak..., ezagutzen ez nituenak, hain zuzen. Fronteko beste batailoi batetik ekarriko zituzten apropos, honela beraiek ere ez bainaute ezagutzen, ez da hain basati egiten, gutxiago kostatzen da aurrez aurre tiro egitea. Harrobiko ebakidura batera ailegatzen ari ginenean, Salustio pauso bat galtzen hasten da, ni parekatu nau eta kapitainak pausokada airean duen unean bertan esaten dit kabuak ahoa ireki ere gabe: "Hi hasi adi geratzen", eta ulertzen dut instantean, hitzartua bagenu bezala, eta aurreratzen da Salustio berriro atzetik zetozen lauei besoz seinale egin balie legez..., baina ezker eskuinetik eta aurretik hasi dira enbuskatuak zeuden gizonak jauzten eta neuk Salustio asaldatuko zela uste nuen honetan ikusten dut kapitainari besotik ahalegin gogorrez atzaparkatzen eta esaten, ia ahotsik altxatu ere gabe:

"Kapitain!, honaino heldu zara!".

Eta argi berritan piztuta dagoen harri biziko murraila erraldoiaren aurka jaurtikitzen du bortizki, eta entzuten dut ikusi gabe lau milizianoek inguruko soldaduekin mekaguendioska daramaten borroka itsua, eta entzuten dira, neuk entzuten ditut neure atzerapausoan babestua nagoela!, bost tiro gertutik, bertan, eta ikusten dut kapitaina, komandantea!, erortzen, zango luze haietatik ebakia, besorik gabe, eta enbuskatuak mendixka gaineko argirantz abiatzen dira, zein goiz igotzen den eguzkia zeruan fusilamenduetako goizaldeetan!, eta hilen atzetik datorkit Salustioaren orroa zirrarak gabe esaten:

"Oraindik erabaki dezakezu: zatoz, bizia bermatzen dizut. Kapitainaren aldean geratzen bazara, kapitaina hila eta zu bizirik, zerorri akabatuko zaituzte!". Eta botatzen dit, begiak itxirik, gotzainaren bedeinkapena hiru aldiz Hirutasun Sainduaren pertsonak banan-banan izendatuz!

Ni, harri egina.

Ez dut ezer esan, eta hilekin geratua naiz dagoeneko.

Erretiradako tren

Transbordadorea leherrarazi zuten eguna izan zen, ekainak 16, Bilbo erortzeko bezpera.

Ez nago segur hiria bonbardatzen aritu ziren hegazkinak 112 ala 113 izan ziren, arratsalderdian ernai nengoela edo gauez lotan kontatu nituen. Hankaz gora jaio zen eguna izan zen; denok batera abiatu ginen, Hernaniko izeba, lehengusuak, hauen amona, eta neu amarekin bakarrik, aita guretzat ordurako galdua, eta errepidea bete jende Santanderrerantz. Aurrena geltokira heldu ginen, tren txikiaren abiapuntua... betea, jendez eta garrasiz, haurren negarrez, eta gure zain aspertzen zegoen tren-makinaren txistu luze bat...

"Geldiro, denak kabituko zarete eta... Ea! Ez! Haurrak lehenik, beren amekin! Mesedez, haurrik ez ezazue hemen galdu! Mesedez gurasoak beren haurrekin, galdu gabe, baina jarrai, jarrai, igo trenera banan-banan".

Katxutxa urdina zeramana zen nagusi, nonbait, honi egiten zioten kasu beste gudari batzuek. Jendezko ibai estu, tinkoa, bazihoan tiraka tren txikira, denak bat, gorputz oso-mugikor-kexatia bailitzan, eta bero, izerditan, eguraldia ere halakoa baitzen.

"Tu!!", egin zuen makinako baporeak, eta astinduz mugitu zen, klink, klank, eta jendetza garrasi batean, izututa, faxistekin han geratuko ote ginen beldur! "Tu!, tu!, tu!", luze txistu hiru aldiz eta gu oraindik... Amona aurretik, lehengusu txikiak gero, eta izeba eta amatxo niri eskutik lotuta, eta ni haienetik!, zeren eta luxe flakoxta eta hamabost urteko mutiko bat besterik ez nintzen artean... Amatxo, altuena, goitik ikusten zuelako, izan zen hurbiltzen ari ginela konturatu zena, eta gudarietako batek esan ere egin zion:

"Lasai, andrea, zuek igoko zarete eta",

"Bai, eskerrik asko", eskertzekoa baitzen egoera larri hartan zutaz norbait arduratzea.

Eta igo ginen, ni azkena, amari eskuturretik helduta; denak eserita zeuden baina gu zutik, eta mugitzeko ere tarterik ez. Amona, nahiko makurtua berez, jendartean arnasa hartu ezinik, kexu zen. Bere alaba, nire izeba, ahalegintzen zen amari tartetxo bat egiten.

"Hara, ama, sartu gara behintzat".

"Berton hiltzeko!".

"Ez, ama, hemendik aurrera haize pixka bat izango dugu".

Hala ere, noizbait irten zenean gutxi aldatu ziren gauzak. Mantsoa baitzen trentxoa, eguzkiak jotzen zuen oraindik mendi gaineratik eta bazirudien alde guztietatik beroak erasotzen zuela, zeren eta trenaren bihurtuenean eramaten gintuzten beti eguzkitara. Ez dakit nola ez ginen bertan urtu! Tunel txiki ilun eta hozkara batzuetatik pasa gintuen arnasa hartuz. Luze egin zitzaigun arratsaldea, noizbait eguzkia itzaltzen hasi zen arte; gaua zetorrela freskagarri.

Eta lasaitzen hasi ginenean geratu egin zen gure tren txikia.

Han jaitsiarazi gintuzten.

Gu pozik, arnasa garbia behar baikenuen denok, eta etzan egin ginen lurrean nagiak ateraz. Zelako deskantsua dakarkion gorputzari jarrera aldatzeak! Zeruko argi zabalera begira nengoela, konturatu nintzen iluntzen hasia zen kinka honetan ez zela paraje

hartan argi bat ageri. Gure herriko kamineroek erremintak gordetzeko zuten txabolatxo bakarti eta huts bat besterik ez. Laster konturatu zen barrez eta algaraz zegoen jendea janaririk ere ez zela han inon sumatzen, eta haurrek ogia eskatzen zuten, txikienek esnea. Bularra zutenek abantaila ederra izan zuten unetxo honetan! Besterik ez zen han. Hozgiro gozoa dena freskagarri hartu genuenean, hotza ere hasi ginen nabaritzen, eta inguruko epelaren bila. Pertsona zer den! Zein erraz aldatzen zaizkion beharrak. Hala bultza gintuzten bata bestearen kontra, alde..., haurren zapi batzuk bihurtu ziren beroki. Logalea sartu zitzaigunean jarri ginen bakoitza berean loak hartzeko moduan, gauzak errazten.

Oskarbiaren izarrez inguratuak, babestuak, eta ilargia ere agertu zen, hilgorako izpitxo bat besterik ez bazen ere.

Eta dena isildu zen.

Gauerdia izango zen trentxo bat, "takata-taka", txisturik jo gabe, gure ondotik pasa eta aurrera jarraitu zuenean.

"Gu hemen utzi gaituzte, lokomotorarik gabe", esan zuen gizon ahots zakarra zuen norbaitek. Eta hala ere, batzuk mugitu baziren ere, arrimuaren epelean lo, beila zorroan geratu ginen berriz.

Luzea izan zen gaua nire amarentzat eta niretzat.

Biok ikusi genuen batera jendetza handi haren artean argitasun zabal apala bi mendixka arteko golkotik igotzen. Argia gauza ederra da iluna uxatuz datorrenean. Hasi ziren gorputzak esnatzen, askatzen eta ernatzen, eta jauzika hasi balitz legez ikusi nuen eguzkiaren argia igotzen eta denbora berean haizetxo biguna isilik putzaldika. Bezperako marmarra joan zen berriz pizten garrasi txiki batzuekin. Aurreko eguneko beroa aurrentitzen hasi ginen. Askotan atzoko beldurrak sortzen digu gaur ager daitekeena, eta sarri beldurgarriago gertatzen da aurreustea gero gertatuko dena baino. Eta hala izan zen goiz honek sortu zigun izua, zeren eta honetan, eguzkiaren gorakadari begira geundela, entzun genuen txistua: "Fiu, fiu, fiu, fiu!", lau aldiz, eta zutitu ginen denok, mundua!, eta lantuak gora eta gora, oraindik heldu ez zen baina pasako zen trentxoari begira geundela. Eta pasa gabe, geratu, ge-ra-tu!, egin zen, txirristada luze batez eta belarrian min egiten zuen hots kirrinkaz, eta bertatik jaitsitako gizon batzuk igotzeko esaka hasi ziren, agintzen:

"Azkar, igo, igo"...

Eta bezperan gertatu ez zen milagroa jazo zen: bezperako eskarmentuarekin, poliki-poliki, eta aurreko egunean irtenaldian baino gutxiago ginelako ere bai, baina hala igo ginen ordu erdi batean denak gure tokietara, eserlekuak aurretik ezagunak bagenitu bezala, eta kexarik gabe. Txistua jo, eta han irten ginen, "klink" "klink" batzuk, eta burdinazko gurpilak igurtzika, martxan, eta freskoa zen goizean, baraurik geunden arren, inork ez zuen ezer esan...

Mirari txiki bat bazen abiada hau!

Ez zen betiko, ordea, zeren eta ordu laurden baten ondoren abiadura mantsotzen, mantsotzen, jendea isilik..., eta osorik geratu zen trena, geratu egin ginen seko! Gelditu, geltoki polit baten aurrean geratzea suertatu zen, hala ere!, eta hemen promesak, jaisteko, jaten emango zigutela eta lo ere han egingo genuela!

Herrixka bat agertu zitzaigun oinez mugitu ginenean geltokiaren atzean, eta hara, familiak bilduz bakoitza bere jendearekin hartu gintuzten etxetxo haietan kabitzen ginen arabera eta neurrian. Ez denek ongi, hala ere. Ikusi besterik ez zegoen: batzuek ongi, bihotz bete, eta besteek ez hain ongi, eta muturrak okertuta ere bai. Baina milizianoak zeuden han gu onartzeko, bertoko armadunak. Eta gure amonaxo makurtua eta izeba-lehengusuak eta ama eta ni, elkarrekin sartu gintuzten bi bizitzako etxetxo batean.

Jaten eman zizkiguten ogitarteko gozo bi bakoitzari, txorixozkoak biak, eta ura!, eta haurrentzat esnea.

Laster jakin genuen etxe hartan bizi zena geltokiko katxutxadun jefea zela. Galdetu zigun honek ea ongi ari al ginen jaten eta edaten, eta gero oheratzeko behar zutenak, eguna behintzat hor pasako genuela Santanderko portua apur bat lasaitzen zen arte. Jan eta gero joan ziren emakumeak eta haurrak gelara, gela batean denak, zortzi ziren, lurrean berokiak zabaldua. Ni kanpoan utzi ninduten bereizpen honetan. Gela baterako zortzi nahikoak zirelako, eta, gainera, gainerakoak emeak eta haur txikiak zirelako; eta izebak esan zidan han inguruan ikusi ninduenean, mutilentzat beste gelaren bat izango zela. Eta etxeko andrea, orduan adinekoa iruditu zitzaidan, baina gaur pentsatzen jarrita, hogeita hamarren bat urte izango zituen, eta honek esan zidan etortzeko, etortzeko... Joan nintzaion atzetik eta ondoko atea ireki eta han sartzeko esan zidan, eta hura niri begira eta esaten ohean sartzeko, agurea nekatuta eta lo zegoela, ohean sartzeko... Nik pauso bat eman nuen, baina andreak ikusi zidan ikara. Ohean zegoen agurea oso zaharra zen, bizurrudin bat!, eta zurrungaka, lo seko, baina nik hila ikusi nuen! "Zer, ez al duzu hor sartu nahi?". Ni isilik, baina geldi. "Deskantsu pixka bat behar duzu, gaixoa, nekatuta zaude zu ere..., etzan zaitez, besterik ez dago eta". Eta ni geldi baina zaharraren ohe txikiari atzea eman eta gelatik irteteko asmotan... Ikusi zidan etxekoandreak ongi izua, bai!, eta esan zidan: "Tira, goazen, beldur diozu, eh? Nekatuta dagoen agure on bat da. Etzan eta lo geratu da. Nire gizonak esan dit seguraski –eta eskailerak jaisten ari ginen– gaurko eguna eta gaua ere hemen pasa beharko dituzuela, eta gauerako nekatuko zarenez, etzan beharko duzu pixka bat gauetz behintzat. Hau esan dit Endrikek, senarrak. Hemengo jefea da, badakizu?". Nik baietz buruaz, hitz egiteko gauza ez nintzen eta jarraitu zuen behean, sukaldean: "Nonbait trenak beteak eta bidean uzten dituzte gero, lo egin ondoren, Santanderko bideari jarraitzeko, han itsasuntziak baitaude zain zuek Frantziara eramateko".

"Bai", nik.

"Bada, hori, senarra eta ni bi haur txikiekin gela batean jarriko gara gaurkoz, haurrak gurekin, eta zahartxo horren ohean beste norbait joango da. Ikusi duzu zeure ama eta besteen gela oso beteta dagoela... Beno, zuk herria ikus ezazu oraingoz, eta gauerako loak hartuko zaitu zutik ere!".

Ni irten naiz sukaldetik "gero arte" esanez, eta utzi dit joaten, sukaldean familiarentzat zerbait prestatzen hasi baita; bera bere etxean dago, betiko lanak ordu berean egiten, nahiz eta gu gerrako izuak eta nekeak botata egotea suertatu.

Herrixkan itzuli bat egin nuen eta oheratu gabe geratu ziren gizonen artean ikus-entzuten jarri nintzen.

Etxekoandrea ongi portatu zela esan nion neure buruari, pertsona nagusia banintz bezala hitz egin zidan.

Gizonak hizketan, trenaz ari ziren: Bilbora jende gehiagoren bila joan zela eta itzultzen zenean, nekatuta zetozenak hemen utzi eta geu igoko ginela Santanderko kairaino, merkataluntzietara eramateko, Frantziako bidean noski... Eta aspertu nintzenean, etxera, oraingo gure etxera, hurbildu eta bertoko sarrerako harriaren gainean eseri nintzen. Haurrez betetzen hasia zen lekua, oheetatik laster jaitsi ziren jolasera, hau txango bat balitz bezala. Gomazko pilota bat ere atera zuten, eta nire adineko bi jolasean hasi zirenekoan, parte hartu nuen.

Eta eguna bazihoan.

Mantso-mantso amaitzen ari zen, eta, bat-batean beldurtu egin nintzen. Jaisten ari zen jendea plazatxora, hiruzpalau orduko loa nahikoa zen indar berritzeko, gerratik urrunago joan nahi zuen, eta, urduri zirudien. Hala eratu zen zurrumurru hartatik komisio bat, bi emakumezko, adinekoa bat, eta gizon kopetiluna, eta hurbildu ziren gure etxera (ama eta besteak oraindik lo!), haserre nonbait, eta esan zion geltokiko jefeari, orain katxutxarrik gabe, afaltzen ari baitzen bere lauко familiatxoarekin:

"Aizu, barkatu molestia, eh!, baina zer egiten dugu guk hemen?"

"Bihar arte deskantsatu, eta ahal duenak, lo... Zer besterik?"

"Santaderko kaira joan barkua hartzeko".

"Hori ez da nire zeregina", erantzun zion modu onean kopetilunari.

Hau, berriz, marmarrean aurrea eta ahotsa altxaten hasi zen, aurrez aurre: "Hemen gertatzen dena da, faxista asko dagoela kamuflatuta, eta defentsarako garrantzi handia duten zereginetan, gainera! Hau da hemen gertatzen dena!"

Eta berton itzuli eta bazihoan...

Baina geltokiko jefea atzetik presa handiz heldu zitzaion eta kopetiluna konturatzerako eskuinarekin heldu zion lepondotik eta behetik hanka trabatzen ziola gizona lurrera bota zuen! Eta erori zena berton geratu, geldi-geldi, harrituta.

"Esan berriz, gizona bazara, arestian esan duzun gauza bera, eta hementxe botako zaitut txakur amorratua bezala! Esan, edo hemen utziko zaitut lotsagarri jende honen guztiaren aurrean, bizirik, baina barregarri!, gizon batentzat okerragoa da eta". Katxutxaduna zutik, orain pistola eskuan, zain... Kopetiluna isilik altxatu eta jefeari bizkar eman eta hor joan zen, komisioko andreak galdu eta jendartean, dagoeneko mundua bildu baitzen atsedena hartu eta gero.

Ez zen haur negar bat ere entzun.

Orduan itzuli zen jefea etxera, lasai. Nire ondotik pasa zen sukaldera, mahaian eseri zen.

"Zer pasa da?", galdetu zion emazteak, urduri.

"Ezer ez..., hemen denok gaude zer egin ez dakigula, trenak non dabilzan, beterik ala hutsik datozen, hutsik zergatik dauden lokomotorarik gabe... Denok gaude nerbioso, baina ezin da burutik pasatzen den guztia ahotik nolana bota! Ni funtzionario bat naiz, baina gizona ere bai, mekaguen Dios!!".

"Jesus Maria!", esan zuen emazteak afarirako ogi biribil handitik zatiak ebakitzen ari zela.

Bi haurrak ere hor baitzeuden, neska-mutilak.

Eta eseri eta jaten hasi ziren laurak.

"Mutikoak ez al du jan behar?", galdetu zuen orain mahaitik niri atera begira.

"Familia goian dago, gelan oraindik, lehertuta daude".

Eta, hara, hemen zetozen, amonaxo konkortua aurrena eta lehengusuak eta hiru emakume, hauen artean nire ama. Faktorea altxatu zen gizabidez, ea atsedetik hartu zuten, jateko zerbait emango zietela herriko eskolatxoan, eta sukaldetik irten eta seinalatu zien eskola non zegoen. Neronek ere ikusi nuen han bildu zela jendea, lerroka zabalean, familiaka, afaritxoaren bila, eta ni ere lehengusuekin abiatu nintzenez konturatu nintzen etxeakoandreak dei egiten zidala, eta etortzeko; amak gauza bera esaten zidan: "Jan ezazu beroriekin, seme, hain maitekor eskaintzen badizute; eta ni sartu eta mahaian eseri eta afaldu nuen eltzekoa, bakailao tortila puska handi bat ogiarekin, eta sagar bat.

Ardoa ere eskaini zidan jefek, bera zerbitzatu zenean. Gero hurrekin pixka bat jolas egin nuen atarian.

Han ikusi nuen plazatxoko argitan (indar gutxiko argi zuria zegoen herri hartan), katxutxadun jefea inguruan bildu zitzaion jendeari hizketan; han jabetu nintzen, berak esanda, bertoko alkatea ere bazela. Esan zuen gau hartan han lo egingo genuela, baina biharamunean goiz, goiz!, seiretan esan nahi zuen, han egongo zela trenea lokomotorarekin, eta azkenean!, eramango gintuztela Santandererraino. "Konforme?", galdetu zuen, eta jendeak txaloka eta bibaka onartu zuen. Laster hedatu zen jendea, oraindik hamarrak besterik ez baziren ere, eta eguargiz, zeren eta biharamunean bidaia jarraitzeko hobe zela berehala oheratzen hastea, eta bera ere bai, esan zuen barrez, bere herrira une larrietan etorri zirenen alde ahalegina egin nahi zuela, eta nekatua zegoela, eta ohera zihoala, baina, kontuz!, bihar seietan hor ez zegoenak trenea galduko zuela!! Gero trenak beste batzuen bila joan behar zuela oraindik. Jende asko zegoela artean Bilbotik irten eta bidean, trenean abiatzeko zain, gu baino okerrago.

Ni amaren ondoan nengoen familia guztia bere gelarantz abiatu zenean. Ni, pentsatzen, ez nintzela aiton bizardun zahar eta gaixorik ere egongo zen horrekin oheratuko. Jaiki ere ez zen egin, gaixoa! Arduratu nintzen ea ikusten ote nuen gelatik jaisten, edo jendartean norbaitekin, zahartxo hark ere izango zuen norbait... Nire aitona bizi balitz..., esaten nuen nire artean, bietatik edozein, baina bizarduna zen Joxemari ekarrarazi zidan burura... Eta honetan igo ziren amatxo eta amona eta izeba-lehengusuak beren gelara eta niri musu bat eman eta utzi ninduten atea itxita nirera, ez baikenuen astirik ere izan nire oheaz hitz egiteko. Eta minduraz gorako eskailera hartzen hasi nintzenez egin nuen topo etxeakoandrearekin, eta esan zidan egon zela pentsatzen nire eskrupulu hartaz, berak ere gazte zenean izaten zituela honelako beldurrak eta kezak, eta pentsatu zuela, eta senarrari esan, eta honi ere ongi iruditu zitzaiola, ganbaran bazela ohatila bat, geltokikoa, zer gerta ere edukitzen zutena, eta emango zidatela manta bat, eta hori, zer iruditzen zitzaidan?

Niri ongi, noski, bakarrik hobeto lo egingo nuen gaixo zegoen agurearekin baino..., eta galdetu nion ea non zen zahartxo, ez nuela ikusi.

Eta aitortu zidan bi aldiz sartu zela nola zegoen ikusteko, eta ez zela mugitu ere egin egun guztian, hilda balego lez, baina arnasa ongi hartzen zuela. Eman ziola salda beroa, eta ongi hartu zuela, hurrengo goizean erabaki beharko zutela trenean sartu ala herriko ospitalera eramanez. Horregatik, konturatzen zela nire beldurraz, inoiz ikusi ez den zahar, oso zaharra... Normala zela zahar harekin oheratzea gustuko ez izatea.

"Hori ba" esan nion.

Orduan etxekoandreak gora eraman ninduen, lehen bizitzatik ganbarara eskuko eskailera txiki batetik igoz... Argirik ez zegoen! Baina lo egiteko ez zen argirik behar, eta eskua hartuz jarri zidan nirea kamilan, ezagutu nezan nire gau bateko ohea, eta mantaren bila joan zen. Ni ondo, lasai, han bakarrik. Ez zen argi puntutxo bat ere ikusten... Bero samar, bai, laster sentitu nuen egun guztiko eguzkiak han gainean bota zuen beroa oraindik gordea zegoela teiletan. Eta hemen heldu zait etxekoandrea berokiarekin, eta esan dit etzateko, eta bota dit gainera, eta batez ere goizaldean freskatzen dela ganbara, berak inoiz hemen lorik egin ez badu ere. Eta goxoa zen, andrea, zeren eta eskua pasa zidan burutik, eta ikusi, ea izerditan nengoen. Ezetz, ea lo ongi egiten nuen. Berak esnatuko ninduela goizean, senarra trena prestatzeko jaisten zenean.

Eta joan zen.

Lo, berehala hartu nuela uste dut, ez bainuen ezertaz pentsatzeko denborarik izan... esnatu nintzen arte, eta ez bakarrik, baizik eta etxekoandrea zen, ea nola sentitzen nintzen, ea lo bakarrik ongi egiten zen. Nik baietz. Erdi lo oraindik, eta laster esan zidan, eta esan bezala egin, ea bera ere han kabitzen al zen, eta bazirudiela biak ere lo egiteko egokia zela ohetxo hura, eta hartu zidan eskua, nire ezkerrekoa, eta pasa zidan bere gorputz bilutsetik...

Ustekabean bata bestearen gainean geunden!, biak bat bagina bezala, ni isilik egon nahiz, eta etxekoandrea ("deitu nazazu Karmen") orain eskua hara eta hona... Eta loak hartu ninduen berriz. Esnatu nintzenean, bero oso!, konturatu nintzen zer pasa zitzaidan gauean, eta ez nekien zer ordu zen ere, ez zen argirik ikusten... begiratu nuen goiko zulotik, atetik, behera eta ikusi nuen jefea eskailerak jaisten, eta atea ixten, "kris-kras". Eta zain ni, baina ez zen inor igo, eta argiak piztu zituztenean jendea janzteko, eta amatxo eta izebek eta lehengusuek bidaia berri bat egin behar zutela-eta ari ziren beren artean, eta laster deitu zidan etxekoandreak, "e, ordu da, jaiki behar duzu", baina besterik ez, eta jaiki nintzen, familia guztiak hartu zuen kafesnea ogi zopekin, eta irten ginen.

Denbora honetan guztian ni adi, ea etxekoandreak nola begiratzen zidan, eta ezer ez, besteei bezala, eta haurrak maite zituen eta musu bana eman zien eta niri ez, eskua jarri zidan buruan astindu tiki bat emateko, eta irten ginen etxe maitagarri hartatik trenera..., orain arineketan tokia hartzeko. Aurkitu genuen geurea eta eguna gora zihola hasi zen lokomotoraren baforea txistuka, "tu!, tu!, tu!". Eta irteteko unean bertan hor dator jefea gu agurtzera, leihotik eman digu eskua, jo du txibilitua, eta esan digu:

"Karmenek eman al dizue gosaria? Agur".

"Gizon on bat suertatu zaigu", esan zuen izeba Austinak. Denak eserita gindoazen "trakata traka, trakata traka, trakata tra!". Trena bazihoan, eta ni konturatu nintzen aurrena ez gindoazela lehen Bilbotik etorri ginen martxan, "tukutu tu, tukutu tu!", baizik eta "trakata!" abiaduran; hau bizkorragoa zela, "e, ama?". Amak baietz, buruaz, eta izeba Austina izan zen, beti bezala, honelako txikikeriei kontu egiten ez ziena: "Trena beti bezala doa, Xanti, utzi amari bakean...". "Non ote daude Xabiartxo eta Inaxio Bilbo hartu badute", bera betiko leloan, ahizpa zaharrena bazen ere, eta jakin ere, eta ongi, hiru senar ere falta zirela familiaren gerrako espedizio hartan.

Eguna zegoen ederra, eguzkitsua, eta haizetxo batek kulunkatua; ez bezperan bezain bero.

Herri txikietatik pasatzen ari ginen orain, ikusten genuen geraleku bakoitzean betiko katxutxadun faktorea, ez jeferik, geltokietan bezala. Hau bereizten ikasi nuen jefearen etxean afaldu nuenean. Batzuetan bi ikusten genituen, bat bandera gorriaz armatua, eta bestea bi eskuak atzetik lotuta, begirale nagusia zela erakusteko. Kurioso batzuk ere ageri ziren batzuetan, zain bezala, besoaz keinadak egiten, baina trena orain zuzen zihoan Santanderrera, irteterakoan jefear agindu bezala.

Eta eskerrak! Untziak gure zain baitzeuden kaian..., omen!

Eta bat-batean itsasoa usaindu nuen! "Olatuen lurrin gozoa!", esan nuen, baina izeba Austinak, oso ezkor eta lanturosa baitzen gaixoa –oso zen ona–, ez zuen kresal lurrinik usaintzen!, eta dagoeneko untzi handien masta eta tximinia eta banderak ere ikusten jarria zen tren osoa garrasika!

Bost minutu barru, trenak alto.

Geltoki handi baten aurrean, eta jartzen zuen: "Santander". Jendea zebilen han betekadan hara-hona, garrasika, negarrez haurrak eta ama eta amona ere bai. Gizonik, apenas ikusten zen. "Untziak gure zain daudela!", esan zuen izeba Austinak niri begira. Badago hemen gure aurrekorik, esan nuen niretzat; egiatan. Baina itxarotea zer zen bagenekienez, pazientzia handiagoaz hartu genuen orain egoera, eta jaitsi genituen eskailerak, eta ibai zabala zen jendetzaren erdian tinko bata besteari lotuak indarrez behartuta gindoazen, geu bata besteari eskuetatik lotuta, ontzira heldu baino lehen galduko ote ginen beldur. Eta hor ikusten dut Sergio, Sergio Irazu, euskaldunei laguntzeko Jaurilaritzaren aginduz lanean... Ez baikintuzten Santanderko hiritarrek ongi hartu, gerra geuk galdu "genuelako" eta orain beraiek geratzen zirelako frankisten armadaren aurrean..., hau esan zigun hitz gutxitan Sergiok, eta gure aitaz, Bilbotik irteterakoan ikusi zuela. Bizirik? Noski! Berak ikusten zuenean esango ziola, berak lagundu zigun agindua erakusten zuen papera eskuan zuela. Bertoko miliziano gazteak fusilekin oztopoak jartzen bazizkioten ere. Nasa luze-zabalean untzien handitasun beltzekin topatu arte eserita mundua zegoen dagoeneko. Guk bero, labeko beroa bezalakoa zen eguerdi eguzkitsu hartakoa, eta sardinzaharraren kiratsa zegoen. Haurrei amek jarri zizkiguten painueloak burugainean lotuta, eta beraiek ere gauza bera egin zuten.

Sergio Irazu hurbildu zitzaigun orain nolabait.

"Sergio", galdetu zion amatxok, "zer egingo dugu hemen, eta noiz arte?".

"Pazientzia behar dugu, gauzak oker datoz eta, hemen Francoren hegazkinak...". Isildu egin zen. "Barku ingelesak eta frantsesak ere badira hemen, baina igotzeko baimenik ez dago oraindik. Zaudete hemen, nik badut eginbeharririk, baina gogoan izango dut hemen zaudetela, 'Newcastle' untzi amarratuaren parean. Laster arte".

Eta galdu zen Sergio gizajoa gerrako mundu beroan.

Emakumeek badute gizonezkook ez dugun zentzu bat baino gehiago. Batez ere haurrei dagokienez, zestoetatik, fardeletatik, sakeletatik, ateratzen zituzten..., ogi koskor bat, ur bat, geratzen zena; niri eman zidan amak otarteko baten azken muturra, eta altxor hau jaten ari nintzela, eserita gu, zutik zegoen norbaitek esan zuen goitik behera:

"Ea, zu", eta niri bota puntarekin atzetik ukituz, "zutik, zenbat urte dituzu!". Amak erantzun zion, "hamalau". "Hamalau honek! Jarri zutik". Altxatu nintzen ni. "Hamalau!, ni adinako mutila bada eta! Ikusi..."

Eta egia zen, argala eta luxea ni, segaila, edo bestea, fusilduna, txikia! Hau zen gertatzen zena.

"Paperak", esan zuen galdezka ari zenak, bere pareja laguna isilik eta begira.

"Ez dut paperik", esan nuen, "eh, ama?"

Frantziako muturretik oneraino paperik gabe etorri?"

"Nik badut hemen papera", esan zuen amak, hori ere bazuen nonbait gordea, golkotik atera zuen libretatxo batean, neuk ezagutzen ez nuena, eta atera zuen bularretik papera eta eman zion milizianoa-edo zenari. Honek begiratu zuen. Bestea ingurura begira eta gure arazoan sartu gabe. "Xanti Unzalu, Andoainen 1921ean jaioa..., zer urtetan gaude?", galdetu zion nire amari. "1937an, ekainean". "Orduan, ez al dakizue zuek kenketa bat egiten: 16 urte ditu gizontxo honek". "Hamasei egingo ditu azaroan"... "Bai, baina hemendik hilabete batzuetara 16! Tira, goazen. Hi, Ernesto, goazen Brigadara". Eta niri besotik heldu eta han naramate jende artean, denak eserita, etzanda, handik ezin ateraz, eta "Aizu!", nire ama atzetik zetorren negarrez. "Andrea, gera zaitetz hor, ekarriko dizugu bueltan, trintxera batzuk egin behar ditugu eta handik ihesi eta borrokarik egin gabe datozen euskaldunek honetarako behintzat balio behar dute".

Kaletik zehar ni hogeituroko bi milizianoen esku, lapur bat banintz bezala.

Eta ama atzetik negarrez: "Entzun!, mesedez!"

Atean bandera gorri bat zeukan txalet batera sartu ginen. Ama atean utzi zuten, atariko guardiari esan zioten andre hari ez sartzen uzteko, eta gu barrura, pasiloa jendez betea, mar-mar handia, ezker-eskuin ofizinak, eta jendea, gizonak, gazteak batzuk, baina adinekoak ere bai...

Lerro batean utzi ninduten, eta bertoko ardura zuenari esan zioten Brigadarako nintzela, eta alde egin zuten. Bakarrik sentitu nintzen, izututa. Kontatu nituen aurrekoak, euskaldunak gehienak, itxuraz, isilik hauek! Hamabigarrena nintzen. Begirada zorrotzak, larriak, batetik bestera. Entzuten nituen mahaiko galderak, gauza bera beti: nondik eta zergatik etorri ginen frentea utzita! Nik larrialdiari ezin eutsi; negarra irteten eta ezin nintzen haur bat bezala zotinka hasi! "Kapitaina, kapitaina!", entzun genuenean isildu zen galdeketa, eta konturatzeko denborarik gabe bulego hartako denak kamioi batera igotzen hasi ziren. Eta irten aurretik zein ikusiko nik eta... ama! Sergiorekin, nire bila. Ikusi nindutenean poztu ziren, bai ni ere!, eta Sergiok papera erakutsi eta esan zion bera zela Bilbotik zetozenetako arduradun bat, eta "haur horrek han zuela bere ama!". Baina kamioia irten egin zen presa handiz bezala eta nik banuen negar egiteko gogoia, eta egin nuen, baina alferrik.

Une honetan gizondu nintzen, nahitaez, bortxaz.

Eguraldi ederra, bero gainera, eta kamioiaren gainean freskura, haize gozoa.

Lurrean eserita gindoazen denok, hogeita bost kontatu nituen. Zahar batzuk ere bai, baina gehienak nire aitaren adinekoak, eta hiru bakarrik gaztetxoak, neu gazteena... Hala esan zidan bizkaitarra omen zen Florentxiok, hogeita bost urte, eta hankan bala batekin ospitalean zegoela, eta oraindik alta eman gabe irten behar izan zuela eta Santanderko kalean harrapatu. Oraindik min zuen zangoan, erakutsi ere egin zidan benda... Gerra

hasi zenez gero oso gaizki portatu zela hemengo jendea, ez zituztela gure agiriak eta paperak onartzen...

Honela jabetu nintzen gure herriko gauzak nola zeuden. Dagoeneko kamioia mendian zebilen gurdibideetatik, eta gain batean aitzurrean ari zen jendea ikusi genuenean eta bertan hotsak entzun, geratu egin zen kamioia, jaitsiarazi gintuzten eta: "A cavar!", aitzurrak eta pikatxoiak banatu zituzten, eta saskiak eta mono urdin handi bana, eta oihuka, paparrean kabua zela esaten zigun lerro gorriko insignia zuenak jarri gintuen, "tú aquí, tú ahí", bakoitzak bere zuloa egin zezan.

Hau izan zen ordu gutxitan nire, gure!, bizitzak izan zuen aldaketa!

Lehertu nintzen, ez nuen indarririk lan honetarako.

Egun madarikatu hura itzaltzen zihoala igoarazi gintuzten mendixkaren hegalean larrean ezkutatuta bezala zegoen meazulo batera, eta han utzi gintuzten atsedean hartzen. Arrantxoa banatu ziguten: latatxo bat, sardinak oliotan, eta ogi puska bana, eta hura jaten ari ginela, bakoitza berean, konturatu nintzen galdu egin nuela bizkaitarra, eta hasi zitzaigun kabua hizketan.

"Ardo apur bat ere etorriko da hurrengo kamioian. Burusi bana ere jasoko duzue. Barkatu, kamaradok, modu honetan ekarri bazaituztegu; baina eukaldunek ustekabeen utzi dute frentea eta hango eta hemengo denen laguntza behar dugu Iparraldeko Frentea defendatzeko. Orain etzango zarete lau orduz. Gaez egin beharko dugu batez ere hemen lubakia, egunez abioiak etortzen dira-eta nasako jendea izutzeraz, eta bertan zain dauden ontziek hutsik alde egin dezaten".

"Bonbaketak entzuten dituzuenean, badakizue zer den, eta honeratzen direnean zeuok antzemango diozue zuengana eta Errepublika lanean ari den toki guztietara datozela alemaniarrek eta italiarrak diren hegazkinak.

"Hau da dena, hemendik lau ordu arte".

Hezea zegoen lurra, eta laster sentitu nuen hotza ere.

Konturatu gabe loak hartu ninduen, hain nengoen jota.

Handik laster, bakoitzaren loa ez baita ordutan neurtzen, entzun nion nire aldamenean etzanda zegoenari esaten: "Tira, esna hurrengo!". Eta bost minutu barru zutik geunden berriz, oinak sentitzen ez nituela, eskuak larrututa, babaz beteak... Nola hartuko nuen berriz aitzurra nire harrizko bi eskutxo haiekin! Eta irten ginen satorrak bezala larre azpiko zulotik banan-banan eta isilik. Pausoak entzuten ziren buztinetan, "tap-tap", errepikan, eta irteterakoan, ilargi berria zeruan, oskarbi, kafea eman ziguten kazoka latatxo batean, banan-banan, eta konturatu nintzen nire aurrean zihoana zela dei egin zidan gizakotea, bart nire atzetik etorri eta kandelaren argitan nire alboan etzaten ikusi nuena, zuloa egiten ari ginen errenkadako ordena berean. Eta bata bestearen atzetik kafea edanez, bi zurrut bero!, eta "hemen, hemen" esanez markatu zizkigun gure ardura behar zuen lubakian tokiak, hau zabaltzeko genituen aitzurrak. Nik ezin, ahaleginak eginda ere, eta ohe lagunak, orain lankideak, esan zidan, isilik oso: "Ezin al duk?", Nik ezetz, ezin bainuen. "Jarrai, jarrai, ez duk luzerako izango eta"...

Eta ondoan genuen ilargiaren argi izpi hura gure buruen gainean ahots latza: "Zer, berotu arte duk hau neketsua, gero nahi gabe ere igoko zaizue aitzurra".

Egin nuen bada ahalegina, eta jarraitu nuen neure harrizko gorputzarekin eskuetako urradurak sutan, buruan sudurra bakarrik sentitzen nuela, eta hotza! Gure

begiratzalea urrundu zenean, ahots lagunak esan zidan berriz: "Segi pauso bat aurrera eta utz iezadazu zuri tokatzen zaizun zulo apurra egiten..., segi..., eta nik egingo dizut zati hau, eta jarrai, hor naukazu ondoan gure kabua berriz itzultzen denerako".

Halaxe utzi genion lur-ebakidura hari eguzkia nagusitzen hasi zen arte. Eta berotzen hasi zenean, goizeko hamarrak orduan jakin nuenez, goiko puntatik abiatu eta banan-banan igo ginen babes zulora berriz, orain ni gizonaren aurretik. Eta bakoitza bere tokira itzuli ginenean esan zidan:

"Zer egiten duzu zuk hemen?"

Isildu egin nintzen, zeren eta bazetorren bat, pototxo istilutsu bat eskuan, botila patar batekin tragoxka bana ematen... Niri kosta zitzaidan hura irensten, baina behar nuen! Hau esan zidan lagunak, hartzeko, behar nuela handik ordu pare batera itzultzeko, eta ea bada hark egindako galderari nola erantzuten nion.

"Ba, ni amarekin eta izebekin heldu nintzen trenez Bilbotik eta gero barkuen aurrean..."

"Nasan..."

"Bai..., eta jendetza hartan geundela etorri ziren bi miliziano eta eraman ninduten kamioian irten ginen tokiraino".

"Ezagutzen dut, han egon naiz ni ere, baina ni ez naiz haur bat, joder!, eta uniformeaz jantzitako bi alproja horiek fusilekin xuxen zure bila. Eta ama?"

"Ama negarrez nire atzetik..., alferrik!"

Gizona isilik, eta ni ere bai. Manta gainean nuela etzan ere egin nintzen. Akabatuta nengo.

"Eh", esan zidan berak, "ni gauez noa hemendik, etorri nahi duzu?"

"Ni?"

"Bai, nor bada?". Zurekin ari naiz hizketan, ez al duzu amarekin Frantziara joan nahi... Beno, ez gehiegi hitz egin orain, nik badut hemendik bihar gauez ihes egiteko bidea... Badaiteke lehenago ere... Etorriko al zinateke nirekin amaren bila? Isilik, 'bai' edo 'ez', nahikoa dut. Bai bada, orduan zu ez nigandik urrundu, beti nire atzetik, eta bizkarrean seinalea sumatzen duzunean nire atzetik abia".

"Bai j auna".

"Jauna' ez, Andres".

"Beno".

Goiz erdian satorzulotik irten eta lanean jarri ginenean sargori zegoen, eguzkia galgal eta hego-haizea; ez ginen konturatu zein ederki geunden barruan, eta zein ederki sentitu ginen zuloaren itzalak babesten gintuenean.

Eguraldi bikaina sagarrondo baten gerizpean egoteko.

Eta "run-run-run" ilun bat hasi ginen entzuten. Nik atzera begiratu eta Andresek esan zidan, hitzik gabe, jarrai nezala lasai, etorriko zela. Nik neuk ez nekien zerk etorri behar zuen, baina rum-ruma handitzen eta hurbiltzen ari zen, eta hotsa zetorren zerualdean ikusi nituen sei hegazkin, txoriak ziruditela oraindik, baina zarata gero eta haundiagoa, ozenago... "Bam, bam", entzun genuen, eta denok altxatu ginen trintxeran. "Segi lanean, mekaguen Dios!!", egin zuen garrasi gure jefek, eta han ondoko babes batean zeuden milizianoak ere, gehienetan gutxi ikusten ziren, baina irten ziren begiratzera. "Nasa ari dira bonbardatzen! Eta elektrizitate hartako beroak nolabait

babestuko bagintu bezala esan zidan Andresek hori, Santanderko portu edo untxiak ari zirela bombardatzen. Guk ez genuen inguru guztian mendia eta mendixkak besterik ikusten, baina bonba hotsak bai, entzuten genituen, noski, eta zortzi bonbarenak entzun nituenean bazirudien kolpe izugarri hauek lehertu eta hegazkinen motorrak orduan eta hurbilago sentitzen genituela, eta egia zen ikusten zirela orain mendi baten atzetik itzulia egin eta gugana etortzen".

"Babesera!!", esan zuen gure kabuak, eta jarri gintuen korrika, lerroa galdu eta guzti, bakoitza bere indarren edo beldurraren eraginez.

Sarreran lo egiten zuena zen kontatzen gintuena, inguruan ere goardia asko zegoen ezkutuan. Nahikoa zen txiza edo zerbait gehiago egitera irten eta inguruko ezkutalekuetatik tiro egitea. Halaxe esan zidan lagun berriak, sarrerako gizona ongi esnatu eta baimena lortu gabe ez irteteko, berak ikusi zuela behin, goizean, taldeko bat gauez honelaxe botea... Barruan isilik geunden orain, hegazkinen "urruma" entzun ahal izateko, bi aldiz, bi olatu urrun bezala entzun ahal izan genituen, baina ez zuten ezer bota; hirugarren bueltakoan izan zen danbatekoa.

Ikaragarria izan zen, lurrikara zirudien.

Eta joan ziren. Orduan esan zuen gure enkargatuak; "Ukitu du lubakia goialdean, irten ordenan berriz! Bata bestearen atzetik. Ez zaitezte oraindik zuloan sar, jar zaitezte zuhaizpe txikian. Atsedendaldi bat hartu iluntzen duen bitartean".

Gaua mantso-mantso etorri zenean eman zuten lasaiago arrantxoa: lata bat sardina, ogia eta ardoa ere bai... Zuloak egiteko makinak ginen, eta eskatzen genuen koipeztaketa apur bat, eta honetan zeudela, laster lanean hasteko zain geundela, hurbildu zitzaidan gehixeago Andres eta esan zidan aitagure bat esaten ari balitzaidan, beretzat bi aldiz, "gauez joango gara..., egon lasai eta jarrai geratzen zaizkizun zapata zolekin, ez dago beste batzuen zain egoterik, eta lan honen etenaldia eta gero lau orduko loa tokatzen zaigunez, deituko zaitut, eta ez hitz bat, ez txizarik ere orain... Hemendik ordurarte".

Neuk ezin nion azken puntu honi "a!" bat ere erantsi.

Beti lotan harrapatzen ninduen! "Goazen".

Momentu zail honetan eta hala ere pentsatu nuen nik ea gizon honek lorik ez ote zuen egiten, eta jarraitu nion bere alkandorako punta bati helduta. Eta ni atzetik, ez satorzuloko argirantz, gaua apalki piztua baitzegoen, askotan uda bizian gertatzen den bezala, baizik eta beste muturrerantz. Gizonak etzanda alde batera eta bestera, eta geuk pasa behar genuen bi lerroen artean, eta han lurrarekin aurkitu beharrean Andresek zerbait mugitu zuen, niri keinu egin zidan eskuaz alkandoratik beherantz tiratuz, makur nendin, eta burua jaitsi eta banoa. Arantzak aurpegian sentitzen nituen, baina amaz pentsatzen nuen unetxo honetan, amarengana joango nintzela..., hegazkinek bonbaz hil ez bazituzten denak...! Isilik baineraman hau, niretzat ere, haur ginelarik izuak gordetzen genituen bezala. Eta irten ginen. Haize epela, eta ilargi berria ere bai, hor zegoen, eta pinu usain ederra! Orduan tira zidan gizonak eta esan, geldirik geratzeko, eta zuloa atzetik estaltzen ari zela sumatu nuen. Ez zuen zarata handirik atera, eta hartu ninduen orain eskutik haur bat banintz bezala –eta izan!–. Pinu arteko argi xumea nahikoa zen orain ikusteko, baina ezkerrean hartu eta gorantz joan ginen, oraindik zuhaitzak hor zeuden, bakanago orain eta argiago, baina kontu handiz baliatzen ginen gaueko itzal txinta guztiez.

Eta Andres geratu egin zen.

"Eseriko gara pixka bat", eta halaxe erantzun nion nire nekearen nekez jezarriaz.

"Egin dugu zailena", esan zidan.

Ez nion erantzun.

"Ez hitz egitea hobe. Neuk egingo dut, zuk jakin dezazun nora zoazen, eta norekin!... Lagunak ditut nik inguru honetan. Laster abiatu behar dugu, bi ordu behar ditugu-eta hara iristeko, eta eguzkiak ez du hutsik egiten inoiz. Orain lasai joango gara, baina belarriak erne eta begiak argi. Guk ikusten duguna, bestek ikus dezake. Ikusiko gintuzkete! Hemendik aurrera hobe da, beraz, batzuetan behintzat, zabalki argitan joatea, norbaitek ikusten bagaitu pentsa dezala lasai doazen inguruko norbaitzuk garela, hemen herri txikiak badira-eta mendi hegaletan. Eta bi ordu barru gure etxean egongo gara, hau pentsa ezazu eta lasai. Ez al duzu zangoetan minik? Bai..., orain sofrikarioak ahaztu itzazu...

Eta halaxe joan nintzen, arin eta erne, amaren begiak noiz ikusiko.

Gaixoa!

Andresek iragarri zizkidan bi ordu haiek luze egin zitzaizkidan.

Ikusten nituen etxeak, herrixkak, argiak han-hemen. Errainuek ikaritzen ninduten. Han ihesi gindoazela harrapatzen bagintuzten, bertan hilko gintuzten! Baina ni isilik, lagunaren esanetara. Nolatan zituen gizon honek lagunak hemen! Zergatik niri lagundu... Eta nola ez zuten zulotik irteterakoan geure muturrean zeudenek ezer esan! Haurra nintzen, baina pentsatzen nuen. Igo eta jaitsi, eta aldapatxo hura jaitsi bezain laster iturri baten ur txorro boteretsua, negua balitz legez, "turru!!"... Baserritxoa bihurtunean... Argirik ez. Geratu ginen, minutu bat egongo ginen geldirik, eta Andresek iturria itxi zuen; gero beste egonalditxo bat eta nire aurretik ate nagusira joan eta zabaldu egin zuen... Ni atzera! Oilo batzuk hasi ziren gatazkan, baina argirik ez zen piztu ilunpe beltz hartan:

"Nor da?", kasualki bezala esana irten zen, baina arretaz ahoskatua.

Besarkatu ziren bi gizonak hitz bat esan gabe.

"Hau laguna duk".

Hau zen Andresek esan zuena, eta bertokoak ilunpean eskaileretan gora eraman ninduen, gelatxo batean sartu eta deitu arte lo egiteko esan zidan:

"Lasai".

Gizonak atea itxi zuen eta ilunpera egin zitzaizkidan begiek laster ikusi zuten ohatila bat; eta hain negoen nekatua, alpagatak berez erori ziren eta mantari tira eta azpian sartu nintzen. Laster esnatu nintzen, baina gela argitan zegoen... Loak honelakoak egiten nituen, loak hartu eta esnatu bitarteko orduak instant batean pasa balira bezala. Beti gertatzen zitzaidan hau. Oraingoan pentsatsen jarri nintzen, nolatan nago hemen, eta zer arriskutan sartuta! Orain ikaratu naiz egiatan! Ez nuen ezer entzuten, heldu ginenean entzun genuen ur txorrorik ere ez. Oilarra bai laster, bi aldiz, eta inguruan oiloen kakara... Eta atea, klik, ireki egin zait nire ezkerretara eta gizon handi bat... Andres.

"Egun on", esan dit, "lorik egin al duzu?". Nik baietz. Eta ohetxoan eseri zait. "Lagun artean zaude, egon lasai. Hemen entzun dezakezun edozer zuretzat gorde. Laguna zaitut, ezta? Ba hori behar dut, gizontxoa bezala portatzea. Arratsalderako jakingo dugu nola

dagoen Santanderko nasa, untxiak han dauden, jendea haietara igo den ala zuk herenegun utzi bezala dauden... Beharbada zure zain!", esan dit barrez. "Orain garbi ezazu aurpegi hori, galtza-alkandorak eta alpargatak emango dizkizute, gero gosaldu sukaldean. Ez inolatan ere etxe barrutik irten, ezta leihoetara ere, inork ez baitaki nor dabilen hemen inguruan gaur. Hau egin ezazu, ni zure ondoan izango nauzu eta neuk lagunduko zaitut amagana joaten! Konforme?".

Nik baietz, eta Andresekin berarekin jaitsi naiz.

Goizean ukuiluaren gainean dagoen ganbaratxo batean egon naiz. Andres etorriko zela baina ez da etorri. Ordurik ere ez dut. Zulotxo bat badu ganbara honek, norbaitek hango harria jarri gabe utzi balu bezala, edo beste norbaitek bere lekuan zegoena kendu. Sagasti bat ikusten dut, eta beherantz doan gurdibidea. Hau Andoainen bertan ere izan zitekeen. Santanderren ere bai, nonbait. Bi orduko ibilaldi hori norantz egin ote dugu...

"Klak", eta atea ireki dute.

"Begira zaude", esan dit Andresek. "Itsu-itsuan zaude, ama non duzun ez dakizu..., etxea eta aita ere aspaldi galduak dituzu. Gerra zikina!", eta galdetzen dit begiradarekin.

"Bai".

"Laster bazkalduko dugu... Zulotxo horretatik inor ikusi baduzu, laguna da. Gauetz irrati hotsik entzun baduzu, txistu txikiren bat... Galdera isilak, erantzunak... ez zaitez arduratu.

"Ezer ez".

"Badaezpada esaten dizut".

"Klak", maratila, eta: "Kapitaina". Andres altxatu da ohetik eta joan da, atea itxi du. Ni harri bihurtu banintz bezala geratu naiz. Baina berriz "klak", eta Andres, kapitaina, eseri zait, orain gertuago, eta eskua buru gainean jarri dit eta esan: "Gaizki egin du hau egin duenak, nire graduaz deitu didanak. Nik zurekin gizon bezala jokatu nahian, eta onik egin ahal badut ongi egitea gustatzen zaidan eran, oraingo gure arteko hau bezala. Ulertzen duzu?". Nik baietz, baina ez dakit zenbat, zeren eta kolpetik aita etorri baitzait burura, bere faxisten aurkako borroka, Andoain galdu aurretik iragan zituen arriskuak, eta gero... Zer tokatzen zitzaidan egitea orain? "Nolanahi ere, orain zuk erabaki nire laguntza nolakoa izatea nahi duzun. Mendian ez zaitut utziko". Nik ezetz. "Nik egin nahi dudana ezagutzen duzu, nasara zure amarengana eramanez, baina berri txarrak dira ekarri berri dizkidatenak: untxi ingelesak Santanderko badien daude oraindik, baina jendez bete dituzte. Zure ama untxian dago seguraski. Zer diozu?", galdetzen dit.

Zorabioa sentitu dut, eskerrak etzanda nagoela.

"Xanti", aspaldian ez nuen entzun nire izena, "erabakia zerorrek hartu behar duzu". Aurpegiaren alde bat besterik ez diot ikusten, baina sinesten diot guztia.

"Nola jakin duzu?", galdetu diot.

"Bart gure sareko irrati bidez jakin dut, hona heldu bezain laster. Zu lo zeunden. Baina ni ez naiz gure irrati-mezu horietaz gehiegi fidatzen. Seguru egon nahi nuen. Etorri berria da Santanderren gertatu denaren lekuko bat, nire konfiantza osokoa. Hauxe esatera etorri eta igo da hona arestian, hara! Honek dioenez, beteak daude jendez merkataluntzi ingelesak, irteteko zain.

"Eta ama!".

"Ez dut jakiterik izan, noski. Oraindik badator jendea Bizkaitik, baina Asturias aldera jarraitzen dute. Ni militarra naiz, Bilboko "Garellano" koartelean harrapatu ninduen altxamenduak eta miliziano gorriak lehen aldian material bila sartu ziren desordenu hartan irten nintzen paisanoz jantzita. Santanderrera jo nuen berehala, egun nahasi haietan lortu nuen lagun batek bere kotxean ekartzea, eta honek berak paper berriak lortu, harrezkero Andres Aranburu naiz!, baina zu Zapadoresetako Brigadarako hartu zintuzten baino astebete lehenago eskatu zizkidaten paperak kalean, eta Aranburu euskal izena ikusi zuten bezain laster sartu ninduten lubakia egiteko unitate horretan. Hara non egin genuen topo! Eta dena esateko, hara non ordurako infraestruturaz batzuk prestatzeko denbora izan nuen, Zapadoreen aitzur lanetan ere ohitua naizenez, eta gorriak ere behartuta zeudenez, konfiantza nahikoa lortu nuen nire ihesa prestatzeko, atze hartako zulo eta guzti!, badakizu zerorrek..., honetxegatik ez ziren mutur hartako batzuk 'esnatu', ulertzen orain?".

"Eta ni?".

"Bai, plana niretzat zen, hemendik aurrera egin behar ditudan bezala, baina ezin zintudan, haurra oraindik, han utzi... eta aipatu zenidan zure amak pena handia eman zidan, Nirea bainuen gogoan.

"Orain goazen gaurko zure patura... Badakizu zertan geratu den nik zure amarengatik egin nahi nuena. Erabakia zurea da. Estrategiak hau esaten dit: bat, ama seguraski bere ahizpa eta ilobekin barkura sartuko zuten. Nola geratuko zen zure ama nasan bakarrik! Bi, orain Santanderko kaira zure amaren bila joateak ez du zentzurik, merkataluntzira igotzerik ez dago, eta honezkero irten dira, honetarako dena prest zegoen eta. Ezinezko bi aukera hauez gain baditut beste bi: bat, zutaz arduratuta, zure ama beste errefuxiatuekin batera Asturiaserantz abiatzea, zure bila beti; posible da, jendea berez jendea mugitzen den bidera joaten baita, eta bi, hala balitz, eta suerte pixka batekin, zure ama Asturiasko portuetako batean itsasoratu zain egotea orain".

"Eta zer egingo dut nik?".

"Ba harantz joan. Neronek ezin zaitut eraman, baina badut horretarako dokumentazio berezia duen bat, eta joango zarete hemengo bizpahiru portutara eta egingo duzue ahalegin handi hau arratsalde honetan bertan; ni militarra naiz, eta ikusten dut operazio honen ahalbidea; eta zure begiak baino zorrotzagorik ez da izango mundu guztian jendartean zure ama aurkitzeko!".

Honela irten ginen.

Oinez, baserritik. Gidaria gizon txiki bat zen. "Kamarada" deitzeko esan zidan, pauso txiki eta azkarrez nire aurretik zihoala. "Nik Xanti deituko zaitut, hala zarela esan didate goian". Nik baietz, izena hala nuela, Xanti Unzalu. "Zure historia..., egia esan behar duzu nonahi, honela ez zara nahastuko: nola ama Santanderren galdu zenuen, eta nongoa zaren, Andoain, gipuzkoarra, ezta?"... Nik baietz. "Konforme, zu zeu zara, eta ni, bidean, errepidean, aurkitu zaitudan bat... Bakarrik eta amaren bila gabiltza, nik negarrez aurkitu zaitut, ulertzen?". Bai, bai. Nik denari baietz, eta gainera egia baita. Gizona ez dakit nongoa den. Eta nire buruaz pentsatzen jarri balitz bezala, berak: "Ni neu, ez dakizu nor naizen, bihotz ona erakutsi dizun bat. Baina nitaz ez arduratu, neu hemen ezaguna naiz... Eta herrixka batera iristen ari gara, sarreran eskuineko bigarren etxetxo txuria eta leiho eta ateak orlegiz pintatutakoa..."

"Hemen da", atea bultzatuz. "Ama!" Eta ezkerretara dagoen lehen sarrerak sukaldera ekarri gaitu. Adineko andre txiki bat ari da bertan, eta nire aurkezpena egin eta gero galdetu dio ea beste inor etorri edo nitaz galdetu duen, eta ezetz, arestian bere bila etorritz geroztik ez dela... "Bai, hau da mutikoa, ama Santanderren galdu eta hemen gabiltza bila".

Besterik gabe, hartu bizkarretik eta bere aurrera sartu nau sarreran eskuinera dagoen atetik. Olio usaina, argia piztu, eta automobil beltz xahar bat dago garajea.

"Honekin joango gara amaren bila. Taxista nintzen, eta oraindik CNTko Komiterako egiten ditut lanak. "Sartu", eta kotxearen eskuineko atea irekitzen dit, ni eseri eta itxi arte, eta gero piztu egiten du motorra manibelarekin, bizi-bizi... "Gasolina da hemen falta, badakizu, gerra, baina badituz bale-txartelak eta beste... Hara", eta nire aurretik besoa pasa eta ateratzen du zulutik zapi gorri bat eta lepoan lotzen du... "Utz diezaiozun motorrari berotzen", esaten dit, "atzodanik deskantsuan dago eta".

Eta isildu egin da bat-batean.

Nik ez dut hitzik esan, nahiz eta arestian atea irekitzerakoan bonbilaren argi izpi batez ikusi ditudan CNT letra gorritz idatziak, neuk herrian gerra sortu berri hartan maiz ikusiak kamioi blindatu eta kotxeetan.

Oraindik motorra eztulka, baina apurka-apurka arnasa bizkortuz, "takata, takata... taka, taka... ta ta". "Baziak! Kotxea, emakumeak bezala, ongi berotu behar duk aurrena..., entzun, gaztetxo?". Eta jaisten da eta garajearen ate berdeari atalaga kendu, giltza handiaz bi "kalaka" itzuli eman, ondoren berriz igo eta, txoferra prest, abiatu gara... Kalean ez dabil kotxerik, baina jendea bai ugari, batera eta bestera presaka.

Guk eskuinera hartu dugu.

Pensatu dut Santandertik Asturiasera doan errepidea dela, eta bere horretan norbaitek esan du boz goraz:

"Kamarada!".

"Salud!... Zuri alu bat da hori, baina laguna dut, denak dira nire lagunak... Bagoaz portura, eta zu adi!, ea ama ikusten duzun, batek ez daki eta nondik nora dabilen gaur jendea, txalupa bat non hartuko Frantziara ihes egiteko.

Heldu gara kaira, bi kamioi, zalgurdi bat eta jendez pil-pil. Zarata ikaragarria, eta bero!

"Ni mantso-mantso joango naiz jendartetik, argi zu, maite duzuna ikusten duzun, eta ingurutxo hau egin eta itzuliko naiz errepidera eta geratuko naiz han, ni kotxean, eta zu jaitsiko zara bakarrik, bakarrik!, arrainuntzietara igotzen ari direnak banan-banan ikustera, ea hor agertzen zaizun ama. Ikus ondo, redios!, ea aurkitzen dugun.

Hemen zuk lagundu behar didazu, nik ez dut eta zure ama ezagutzen.

Eten laburra, eta jarraitu du:

"Bakarrik errazago sartuko zara jendartean, eta hamabost urte badituzu, ke kojones! Joan, hartu zure denbora; lo hartu gabe, e! Amaren orde bestea ezagunen bat, herriko norbait, ikusten baduzu ere eutsi, ea amaz zerbait badakien"...

"Edo aitaz", diot nik.

"Aita ere martxa honetan al dabil?".

"Ez zen Santanderrera gurekin heldu".

"Beno, ama edo aita, noski, edo ezagunen bat... eta honi galdetu ea ikusi dituen eta non. Merkataluntziaz ere galdetu, ea aztarrenen bat lortzen duzun. Hala balitz, etorri niri esatera, eta ez balitz, ba aurrera joango gara, portuz portu. Ulertzen?"

Nik baietz, eta zangoak makal, dardarka; baina jendea hona et hara, untzitxoetara igotzen, eta ikusi ditudanean, indar bat sortu zait barruan.

Itxaropena!

Banan-banan pasa ditut bistaz lau itsasuntzitan igota, gainezka, daudenak. Bat gizasemez betea dagoena, bakoitzak bere txokoa hartuta, zelati. Bi zahartxoak, baina gainerakoak helduak... Aita hor egon zitekeen! Batzuk haserre, abiatzen ez zirelako; baina makinistak zubitik arrazoi zuen esaten zuenean gasolioa eskas zuela inora joateko, ezin zela irten depositoa bete eta gutxienez pare bat bidoi handi eta beteak gehigarri bezala kargatzen ez zituen arte. Denek zerbait esan nahi zuten, batek arraun bat zuen eskuan... Baina nor abiatuko litzateke arraunean hemendik Frantziara! Ondoan zegoen untzi urdinean gauza bera zen; hemen isilen zeudenak emakumeak ziren, hustuta bezala, batek haurra besoan, beste batzuk, gazteagoak, barrez eta beren artean jolasean oraindik... Eskerrak amatxo haien artean ez zegoen. Niretzat lekurik ez zegoen, gainera!

Alde egin nuen, ihesi, gorantz. Nik kotxe beltz hartan banuen oraindik itxaropena; behintzat nork haraxeago eraman. Han zegoen Kamarada zain, ni noiz itzuliko:

"Zer da berri?"

"Ezer ez, ezagunik ere ez", eta eseri naiz bere ondoan, zotinka.

"Ez ezazu hain erraz etsi", esaten dit, "oraindik bada porturik Musel arte".

"Zer da hori?"

"Hemengo porturik handiena! Txikietatik ere pasako gara, baliteke-eta zure ama hor izatea, eta aitarekin batera ere, agian, zure bila! Nork daki ezer hemen eta gaurko gerra ero honetan Nire agindua beteko dut, ikusiko ditugu hemendik harantzako portu txikiak ere".

Eta ikusi genituen ikustekoak handik aurrera Kamaradaren ikurrin gorriaren babesean. Paperak ere halakoak izango zituen, zeren eta kotxean gindoazela bi aldiz geldiarazi zuten, paperak eskatu, eta "Adelante, kamarada" esan zioten, eta bigarren honetan geltokian zegoen milizianoak esan zion agurtzerakoan:

"Ez al nindukezu Muselera ino eramango?"

Txoferrak, baietz, komisioan hara zihola esan baitzuen, eta ezin nintzen ni, Kamarada, orain zuzenketak egiten hasi... Eta esan nion, gainera, atea ireki eta atzean esertzera zihoan sarjentuari: "Zatoz aurrera, mutikoa joango da eta atzean". Eta mutikoa lekuz aldatzen ari zela eta milizianoa nire ondoan kokatzen, hasi nintzen pentsatzen nondik nora eramango ninduen eragozpen honek, batez ere mutikoa izutu zitekeelako. Baina, hau atzean isilik ganoraz zihoan eta aurrean nirekin zetorren sarkina zen neuk entretenitu behar nuena.

"Zer, ez gabiltza lasai".

"Lasai, nola?, dena hankaz gora dator eta".

"Hala da".

Isilaldia gehiegi ari da luzatzen, eta diot:

"Muselera bertora zoaz?"

"Ez, Gijongo sarreran uzten banauzu, nahikoa da... Hogeita lau orduko permisoaz etxera noa, gurasoak urduri egongo dira honezkero eta. Bi anaia gara, eta biak hor gabiltza galduta.

"Gurasoak, gauza ederra mundu ustel honetan".

"Hala da".

"Faxismoa ari da zabaltzen, Alemania eta Italia nagusi European zehar", diot ausarti, hemengo militarrek harrotu, moroak eta guzti datoz Kristoren izenean, zer diozu?".

"Lotsagarria apaiz, gotzain eta Aita Santuarekin egiten duten elkarte!... Mekaguen Dios!!", sarjentuak haserre.

Eta goia jota geratu bagina bezala isildu gara.

"Hemen gaude hiriko sarreran, zeuk esan non geratu nahi duzun".

"Ez bazaizu axola, hurrengo kaleko kantoia oso ongi datorkit".

"Bada, bertan utziko zaitut".

Sarjentua jaitsi da eskerrak emanez... Eta atzean datorren mutikoa, ni neu, Xanti, aurreratu naiz gidariaren belarriraino, eta esaten diot:

"Non dago Musel delako kai handi hori?".

"Horren zain al zaude?".

"Bai".

Kamaradak kotxea portutik kanpora utzi du. Maldatxo batean, hain zuzen. Irten gara zinez. Tranbeak dabilta hemen zarata handiz, "tin, tin, tin", beteak, mahats mordoak bezala zintzilik jendea, eta oinez gauza bera, dena betea dago hau, zentzu guztietara mugitzen da, orgatilak beteta, bizkarrean zakuak, maletak eta kaxak..., haurrak negarrez, amak garrasika... Bada hemen niretzat, umezurtz honentzat, nora begiratu... Kamaradaren eskua besaburuan daukat, honek hatz gogorrez esaten dit nondik nora joan, eta hitz egiten dit belarrira:

"Geratuko gara hemen minutu batzuk Eguzkia joan da, baina eguna luzea da oraindik. Hemendik ikusiko dugu pasatzen den guztia, ea zure begiek ezaguna duten zerbait aurkitzen duten, adi gero! Kaira joango gara untziz untzi ongi aztertzeraz, hemengoak handiagoak baitira, konturatzen zara, eta baliteke hemen zorte gehiago izatea".

Begiak nekatu zaizkigu. Nireak, noski, baina Kamaradarenak ere bai, zeren bila ez badaki ere. Eskertzen diot gizon honi bere arreta, eta lehen Andresi, noski!

Iluntzen hasia da eta ez dugu ezer ikusi.

"Xanti", esaten dit lagunak, "honezkero goseak egongo zara, egun guztian ezer jan gabe, eta ni ere bai. Beraz, banoa otarteko baten bila. Gera zaitez hemen, zutoin berde hau utzi gabe, bestela galdu egingo gara eta. Orduerdi barru hemen nauzu. Bitartean, jarrai, orain argi elektrikopean, aurkitu nahi duzunaren bila.

Eta joan zait.

Mugitzen den jendeari begira nekatu eta gertuen gertatzen zaidan untzi bat begiaz arakatzen jarri naiz. Denetik dago hor, gizon, emakume, haurtxo, denetik, brankatik popara dena betea. Batzuek esertzea lortu dute, baina beste asko zutik dago, bestetarako lekurik ez dagoelako. Nola iraungo dute hauek denek Frantziarainoko bide luzean? Kamaradak esan didanez, bizpahiru egun beharko dituzte, gau eta egun! Nola egingo

dute! Eta azkenean hasi da irteten untzia, "tu!..., tu!..., tu"ka. Lurrean geratu den jendea agurka, eta negarrez.

Nora joan ote zait Kamarada?

Hor doa, kale estuan gora, eskuineko espaloitxotik, eta ate marroiari bultzada arin bat eman diodan bezain laster ireki zait bakarrik. Hala zirudien, baina atzean Bixenta dago, eman dizkiot bi musu eta jarraitu diot korridoretik ezkerreko atea amonak ireki duen arte eta han aparatu bi daude mahai txiki baten gainean, eta, eserita nire laguna, hau ere kamarada, baina "Gorri" deituraz ezaguna. Euskalduna, por zierto! Gerra hasiz geroztik hemen duguna.

"Zer duk berri?", galdetzen dit eserita dagoenak, amonak diskretuki atea ixten duen denbora berean, bi hotsek bat.

"Bazihoazek!".

"Oraindik, ez osorik. Oraintxe hitz egin diat klabez Rosariorekin, ezagutzen duk...".

"Eta?", galdetzen diot.

"Badatozela gureak, noski, baina ez lasai. Badakik, katu amorratuari ihes egiten uztea hobe. Baina gorri hauek itsasoa besterik ez ditek, eta itsaso honetan itsasuntzi gutxi".

"Badakik zertan nabilen hemen?, esaten diot. Umezain!".

"Kapitainarekin hitz egin al duk".

"Noski".

"Zer derizkiok?".

"Haurraz ez zeukat zer esanik. Amari gorriek ostutako haurrari laguntzea, ongi; baina bere aita gure arerioa duk!".

"Ezagutzen al duk?".

"Hi bezala".

"Eta?".

"Bere herriko batek idatzita utzi duen salakuntza batek dioenez, lehenengo egunetan erreketeei belarriak moztu eta zezenarenak balira bezala erakusten erabili zitian herrian!".

"Egia ote?".

"Zer, hi ere arerioa defendatzen?".

"Ez, Kapitainaren agindua betetzen!", eta zuzen, begiak begietan, so egin nion.

"Bai, erraza hori duk, konsignari eutsi".

Biak zutik gaude dagoeneko.

"Neuk ere hitz egin diat Kapitainarekin", dio telegrafistak, eta mutiko hori Unzaluren semea zela esan zidanean eta neuk ikusitako informea entzun...

"Zer esan zian?".

"Arerioa den Unzalu akabatzeko, errurik ez duen haurra amaren eskuetan uzteko".

"Salomon bera ez huen jakintsuago portatuko, eta heuk badakik hori, apaiza haiz eta", esan diot nazka handiz.

"Gerra santua duk gurea!".

"Bai, Santakruz!".

"Zergatik ez?".

"Neuk kasu honetan konsigna eta gupida, biak ditiat neurekin, eta amaren bila gabiltzak", esan nion haserre.

"Bai, zortea duk".

"Zergatik zortea?".

"Mutikoaren aita hilda dagoelako!".

"Non?".

"Orain lau egun, Museleko portua betetzen hasi zenean, nahi gabe jakin nian, irakur ezak lista... to!", eta mahaitxoko kaxoitik hartzen du paper bat eta eskuratzen dit... Hartzen diot, eta goian gurutzetxo bat tinta urdinez, eta izen zerrenda bat: "Gaur 'Tentadero' baserriaren atzeko aldean ajustiziatuak izan diren pertsonen izenak:

Rufino Alvarez

Estanislao Egaña

Juan Alustiza

Ramon Igerategi

Ignacio Unzalu

Antonio López

Jesus Antón

Gaueko gure patruilak jarraitu eta hutsa zegoen etxetxoan sartu ondoren harrapatu genituen, armarik gabe baina bere gain agiri konprometituta zituztela, denak Espainiaren eta gure idealen aurkakoak, ihesi Museleko portura zihoazela aitortu zutenak. Berton, atzeko oilategian hil genituen.

Gijongo inguruetan, 1937ko ekainak 22. Izenpetua, Teniente Armando Ruiz."

Irakurri eta txundituta geratu nintzen Xanti umezurtz zela jakin nuenean.

Amorrua eman zidan telegrafistak: "Eta zergatik niri zirika, ni probatzen, ala?", esan nion.

"Ez diagu inoiz nahikoa probatuko, gorri asko baitabil han eta hemen".

"Hi nork probatzen hau!". Eta itzuli erdia militarki egin, niri honela irten zitzaidalako, burlaz, ez baita apaiz alferez hau nire nagusi, eta alde egin nion.

Amonari bi otarte hartu dizkiot eta irten naiz nire paketetxoarekin, Xanti mutiko urrikarriaz pentsatzen, nondik nora dabilen gizajo hau! Jendea gehitu egin da, ibiltzea kostatzen da hemen, eta mutikoari otartekoa ematean esan behar diot ezkutuan jan behar duela, beste norbaitek masailako bat eman eta kenduko baitio, eta erasoko dionak seguraski pistola gerrian duela... Gosea gaitz txarra da eta hemen dago aspaldi.

Gaixo sentitzen naiz. Bere irribarrezko "kamarada" deia etortzen zait burura, entzuten banengo bezala. Ama galdu bidean, eta orain dagoeneko defuntu da bere aita. Mutikoa ez dago posteari lotuta!

Eta ezta inguruan ere! Alde egin dit, baina nora? Ni naiz orain aurpegi ezagun baten bila nabilena, eta Kapitainaren ordena bete gabe! Huts egin diot!... "Kamarada!", entzun dut, eta Xantiren tiple-ahots finarekin esana, garrasitua! Uretatik dator, ez nasatik, eta han dago, untzi baten brankaren puntan, norbaitek bi besoekin eusten diola, barrez. "Hau da aita!". Nik paketetxoa erakutsi diot, eskainiaz... eta haren aitak: "Eskerrik asko".

Orduan konturatu naiz, nola zitekeen fusilatua izan den aitak orain bere besoetan semea niri erakustea...

"Zer izen duzu?", esan diot, paketetxoa besapean eta bi eskuekin bozina eginaz.

"Peru Unzalu!" esan dit, oraindik eskerrak ematen.

A! orduan konturatu naiz, fusilatua anaia izango zela, agian, Ignacio izena baitzuen, edo abizen bereko gizona. Baina ez zen galdera zoroak egiteko garaia, eta neuk eskuinarekin otartekoaren paketetxea jaso eta neronek jaitsi ditut harrizko eskailerak nasan eta lehen zegoen untziko gizon gazte bati eman diot, esanez, mesedez, bi unti harago brankan ikusten zuen mutikoari paketetxea pasatzeko... Eta ikusi dut paketetxea untzitik untzira joaten eta Xantiren eskuetara heltzen.

"Ama?", galdetu diot, ezin gorde izan dut galdera, desgaraikoa eta tristea bazen ere.

"Frantzian" esan dit aitak.

Xantik eskerrak eman dizkit negarrez.

Aita Peru ere malkotan, ikusten nion farolen eta untzien argi apaletako distira, eta esan nien "hori" geroko zela, biderako!...

Ez baitzen unetxo hartan, toki hartan eta gerra bizian oraindik goseak zeuden beste inoren aurrean jaten hasteko garaia. Eta han geratu ginen, haiek niri begira, agur eginaz, eta ni neu begiak malkotan, zer egin ez nekiela, errazena egin, bertan geratu, edo tokirik ez zegoen txalupa batera jauzi egin. Eta errazenean geratu nintzen, besterik ezina zelako... Denbora pasa eta gero, ez dakit zenbat, "Santander" untzia, brankan aita-semeak oraindik besoa jasota zeudela, "tu, tu, tu!" irten zen, aurrekoari pegatuta, lotuta baleude bezala, eta gero niri mesedea egin nion gaztearen agurra entzun nion:

"Salud, kamarada".

Mutikoari entzuna.

Gainerakoak sekretuak baitziren, eta oraindik dira, hau kontatzekoan bizirik, eta nire taxiarekin, eta ama zaharrarekin, zurak berdez pintatutako etxe xurian bizi naizelako.

Aurkibidea

Ulazianeko Kasilda
Poloniarra
Akordatzea ahaztu
Soldaduzkako jazarpenak
Bihotza bilutsik
Isilekoa
Erretiradako tren